

**GRADUA: Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan Gradua**

**2015/2016 ikasturtea**

# **PENTSIOEN ETORKIZUNA**

Egilea: Alaitz Zabaleta Mugarza

Zuzendaria: Alberto Bilbao Garzon

Bilbon, 2016ko urriaren 9an

# EDUKIEN AURKIBIDEA

LABURPENA.....	4
1. SARRERA.....	4
2. XEDEA.....	5
3. METODOLOGIA.....	5
4. PENTSIOAK.....	5
4.1. MOTAK.....	6
5. AZTERKETA.....	6
5.1. DIRU-SARRERA.....	6
5.1.1.GOBERNUA.....	7
5.1.2.KOTIZAZIOAK.....	15
5.1.2.1.SOLDATAREN BATEZ BESTEKOA.....	16
5.1.2.2. LANGABEZIA.....	16
5.1.2.2.1. GAZTEEN LANGABEZIA.....	17
5.1.2.3. LANGILE KOPURUA.....	18
5.1.2.4. ENPRESAK.....	19
5.2. DIRU IRTEERAK.....	20
5.2.1. PENSIO MOTAK.....	20
5.2.1.1. ERRETIROA.....	20
5.2.1.2. EZINTASUN IRAUNKORRA.....	21
5.2.1.3. HERIOTZAGATIK:.....	22
5.2.1.3.1. ALARGUNTZA.....	22
5.2.1.3.2. ZURZTASUNA.....	23
5.2.1.3.3. FAMILIEN ALDEKOA.....	23
5.2.2. GASTUAK.....	25
6. DEMOGRAFIA.....	25
6.1. DEMOGRAFIAREN BILAKAERA.....	27
7. EMAITZAK.....	28
8. ARAZOAREN IDENTIFIKAZIOA ETA PROPOSAMENA.....	30
9. ONDORIOAK.....	32
10.BIBLIOGRAFIA.....	33

# IRUDIEN AURKIBIDEA

1. IRUDIA: ERRESERBA-FONDOAN URTERO GELDITZEN DEN DIRU-KOPURUA .....	7
2. IRUDIA: FAMILIAGATIKO BATEZ BESTEKO URTEROKO GASTUA .....	11
3. IRUDIA: ESTATUAREN EKARPENA ETA KOTIZAZIOENA .....	15
4. IRUDIA: ESPAINIAKO LANGABEZIA .....	17
5. IRUDIA: ESPAINIAKO GAZTEEN LANGABEZIA .....	18
6. IRUDIA: KOTIZATZEN DUTEN LANGILE-KOPURUA .....	18
7. IRUDIA: 2006 URTETIK 2011RA ARTE SORTUTAKO ENPRESA-KOPURUA .....	19
8. IRUDIA: ENPRESA-KOPURUAREN EBOLUZIOA .....	20
9. IRUDIA: ERRETIRO-PENTSIOA JASOTZEN DUTENEN KOPURUA .....	21
10. IRUDIA: EZINTASUN-PENTSIOA JASOTZEN DUTENEN KOPURUA .....	22
11. IRUDIA: ALARGUN-PENTSIOA JASOTZEN DUTENEN KOPURUA .....	23
12. IRUDIA: ZURZTASUN-PENTSIOA JASOTZEN DUTENEN KOPURUA .....	23
13. IRUDIA: FAMILIEN ALDEKO LAGUNTZA JASOTZEN DUTEN PERTSONA-KOPURUA .....	24
14. IRUDIA: PENSIODUNEN KOPURUA GUZTIRA .....	24
15. IRUDIA: KOTIZAZIOPEKO PENSIOEN KOSTUA .....	25
16. IRUDIA: 2015. URTEKO ESPAINIAKO BIZTANLERIAREN PIRAMIDEA .....	26
17. IRUDIA: 65 URTE BAINO GEHIAGO DUTEN LANGILEAK .....	27
18. IRUDIA: ESPAINIAKO BIZTANLERIAREN PIRAMIDEA. 2013 ETA 2023 URTEAK ETA 2014, 2029 ETA 2064 URTEAK.....	28

# TAULEN AURKIBIDEA

1.TAULA: LANBIDE ARTEKO GUTXIENeko SOLDATA (LGS) .....	8
2.TAULA: KOTIZATUTAKO DENBORALDIA ETA ADINA .....	10
3.TAULA: 2014 ETA 2022 URTE BITARTEAN KUTXA PUBLIKOTIK AURREZTU DEN ZENBATEKOA .....	14
4.TAULA: ESTATUAK AURREKONTU BIDEZ GIZARTE SEGURANTZARI TRANSFERITUTAKO ZENBATUSUNA.....	14
5.TAULA: BATEZ BESTEKO SOLDATA GORDINA .....	16
6.TAULA: LABURPENA .....	32

# LABURPENA

Gradu amaierako lan honen helburua pentsioen etorkizuna aztertzea da, gehien eragiten duten aldagaien bilakaera aztertuz. Lan honetan; erretiroa, ezintasun iraunkorra, alarguntasuna, zurruntasuna eta familien aldeko pentsioak aztertuko ditut. Beharrezko informazioa lortzeko, Estatistikako Institutu Nazionalaren eta Gizarte Segurantzaren web-orrietan zentratu naiz; baita, Estatuako Aldizkari Ofizialetan ere. Azken urteetako informazioa lortuz, hura oinarritz aztertu egin dut ea pentsioek etorkizun bideragarria ala zalantzarria izango duten.

Lana pentsioen ordainketetan eragiten duten aldagaiak aztertzean dautza. Aldagai nagusienak, sarrerak eta irteerak dira; horietan eragiten duten kontzeptuak aztertuz eta euren bilakaera ikusiz, etorkizuna aurreikusteko informazio gisa erabili ahal izango dira. Beste aldagai bat ere aipatua eta aztertua izan da, demografia, Espainiako piramideak izan dituen aldaketak eta pentsioen etorkizunean izan dezaketen eragina aztertzeko.

Behin azterketa egin ostean, lan honetan, etorkizunean pentsioak egongo direla; baina, jaso ahal izango dugun zenbatekoa ez digutela bermatuko ondorioztatu dut. Izan ere datuek bi arazo nagusi daudela erakusten digute; alde batetik, Gizarte Segurantzaren defizita eta bestetik, arazo demografikoa. Arazo horiek murrizteko, konponbide hauek proposatu ditut: Lehenengo, gobernuak elizari eta hauteskunde-propaganda egiteagatik, alderdi politikoei ematen dioten diru-laguntzak kentzea. Bigarrenik, presidente eta ministro ohiei ematen zaien biziarteko pentsioa kentzea. Hirugarrenik, kotizazioek duten topea kentzea eta laugarrenik, umea izateagatik ematen zaien diru-laguntza hobetzea, jaiotza gehiago izateko.

## 1. SARRERA

Azkenaldian kolokan dagoen gaia da, zeren une oro ari baikara ahoz aho entzuten kaleetan ez dela erretiro-pentsiorik egongo hemendik urte batzuen burura; eta horren inguruko zalantzak jendearen kezka eta ezinegona areagotzen du. Jendeak bizitzeko dirua behar du; horregatik pentsiorik jasoko ez balute, pentsiodunek ez lukete dirurik izango ondasunak erosteko eta ondorioz gizarte giza-krisi batean sartuko litzateke.

Pentsioak egongo diren zalantzaren arrazoietakoa bat, Espainian dugun demografiaren itxura izango litzateke. Izan ere, pentsioak ordaintzerako unean, urte horretan kotizazioaren bidez jasotako zenbatekoarekin ordaintzen da; hau da, Gizarte Segurantzako web-orrialdean agertzen den bezala: “Banaketako finantzazio teknikoek Gizarte Segurantzako kotizazio eta diru-sarrera orokorrak berehala eta epe laburrean banatzen dituzte, horiek kapitalizatzeko astirik ez dagoenez, subjektu onuradunek jaso beharreko prestazio bilakatzen direlako”<sup>1</sup>. Beraz, demografian gerta daitezkeen aldaketek arazoak sortu ditzaketen ustea dago; eta ondorioz, urteko pasiboak ordaintzeko ea aktibo nahikorik egongo diren kezka ere<sup>2</sup>.

---

<sup>1</sup> Gizarte Segurantzaren (2016): Gizarte Segurantzaren gela. Irakasleen eremua. 5. unitatea. [http://www.seg-social.es/Internet\\_4/PortalEducativo/Profesores/Unidad5/Financiacion/Sistemadefinanciacion/index.htm](http://www.seg-social.es/Internet_4/PortalEducativo/Profesores/Unidad5/Financiacion/Sistemadefinanciacion/index.htm) [2016-10-09an ikusia]

<sup>2</sup> Alcelay, Susana (2016): El «tsunami demográfico» pone en jaque a las pensiones en Europa. 29/05/2016. Diario ABC S.L. [http://www.abc.es/economia/abci-tsunami-demografico-pone-jaque-pensiones-europa-201605290358\\_noticia.html](http://www.abc.es/economia/abci-tsunami-demografico-pone-jaque-pensiones-europa-201605290358_noticia.html) [2016-10-09an ikusia]

Baina, ez da langileen edo enpresen kotizazioa bakarrik ordaintzeko duten iturri bakarra, horregatik garrantzitsua da iturriak aztertzea, zeren horrek eragin zuzena baitauka pentsioen ordainketetan. Alde batetik, lehen esan bezala, enpresen ekarpena eta langileen kotizazioa dago, eta bestetik, estatuaren ekarpenak (Gizarte Segurantzza 2016an).

Aldagaien aldaketetan, Gobernuak aurrera eraman dituzten politika ezberdinen eragina nabariak izan dira. Esaterako, erretiro-adina gero eta handiagoa da, baita ere kotizazio-urtea. Hauekin batera, beste hainbat ezaugarri ezberdinen aldaketak ere kontuan hartu behar dira, pentsioei buruzko analisi orokor bat egiteko.

Gradu amaierako lan honetan, asko kezkatzen gaituen gai hau aztertu nahiko nuke, urteetan izandako ezaugarrien gutxi gorabeherako ibilbidea kalkulatz. Hauek guztiak balizko batzuk besterik ez direla izango kontuan hartu behar dugu, etorkizuna ezin baitugu ezagutu.

Gaia oso interesgarria iruditzen zait, horrek zuzenean edo zeharka gizarte guztiari eragiten diolako; eta niri zehazki, interesgarria iruditzen zait, nire gurasoek eta izaba-osabek 5-10 urte barru erretiratuko direlako.

## 2. XEDEA

Gradu amaierako lan honen helburua, pentsioen etorkizuna aztertzea da. Eta pentsioen artean, honako hauek aztertuko ditut: erretiroa, ezintasun iraunkorra, alarguntza, zurruntasuna eta familien aldekoa.

## 3. METODOLOGIA

Aipaturiko aztertzea burutzeko, hainbat iturri erabiliko ditut: legeria, artikuluak, liburuak, estatistikak,...

Datu estatistikoak bilatzerako orduan, batez ere, web-orrialde hauetan oinarrituko naiz: Estatistikako Institutu Nazionala (INE) eta Gizarte Segurantzza. Hauetaz gainera, Legeak eta Errege Dekretuak, Estatuko Aldizkari Ofizialetik ere atera dut.

Behin azken urteetako informazioa lortu ondoren, pentsioek izango duten ibilbidea analizatuko dut. Honekin batera ezaugarri guztiak batu eta ondorio orokorrera iritsiko naiz.

## 4. PENTSIOAK

Harluxet entziklopedian<sup>3</sup> agertzen den bezala, pentsioa da: “iz. Pertsona batek kasu jakin batzuetan gizarte-segurantzatik edo bestelako erakunde batetik jasotzen duen aldizkako diru-laguntza, biziartekoa edo aldi baterakoa (adib., jubilatzean, alargun gelditzean, lanerako ezgaitasuna aitortzen zaionean, etab).”

---

<sup>3</sup> Harluxet Hiztegi Entziklopedikoa (1998). Elkarlanean, S.L. <http://www1.euskadi.net/harluxet/> [2016-10-09an ikusia]

## 4.1. MOTAK

Motetan sailkatzerako orduan, bitan bereiziko ditut, 2015eko abenduaren 30ean Estatuko Aldizkari Ofizialean, 1170/2015eko Errege Dekretuan<sup>4</sup> aipatzen diren bezala: kotizaziopeko pentsioak eta kotizazio gabekoak.

Kotizaziopekoaren barruan, hainbat pentsio-mota existitzen dira, 1170/2015eko Errege Dekretuko 2. artikuluan agertzen den bezala:

- Erretiroagatik
- Ezintasun iraunkorragatik: erabatekoa, absolutua eta baliaezintasun handia
- Heriotzagatik: alarguntza, zurztasuna eta familien aldekoa.

Bigarrenik, kotizazio gabekoak daude, Gizarte Segurantzaren honela definitzen dutenak: “Legez ezarritako baldintzetan bizirik irauteko ematen zaien laguntza ekonomikoak dira, nahiz eta inoiz ez kotizatu edo ordaindutakoaren araberrako zenbatekoak jasotzeko behar hainbat denboran ez kotizatu”<sup>5</sup>. Pentsio hauen kudeaketa eta funtzioak, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalari edo Autonomia Erkidego bakoitzeko organo eskudunei dagokie<sup>6</sup>. Honen barruan honako pentsio hauek sartzen dira:

- Baliaezintasuna
- Erretiroa

## 5. AZTERKETA

Azterketa burutzeko, lehenik eta behin, iragana ikertu behar dut, ezaugarriek izan duten aldaketa ezagutu ahal izateko. Horretarako hainbat aldagai aztertuko ditut. Alde batetik, Gizarte Segurantzaren diru-sarreran eragiten dutenak: gobernu eta kotizazioak; eta bestetik, diru-irteeretan eragiten dutenak: pentsio-mota ezberdinak (erretiro-pentsioak, ezintasun iraunkorreko pentsioak, alarguntza-pentsioak, zurztasun-pentsioak eta familien aldeko pentsioak) eta gastuak. Gainera, eragiten duten beste aldagai bat ere aztertuko dut: demografia. Ondoren, urtero aldagai hauek izan duten bilakaera aztertuz; esku artean etorkizuna aurreikusteko informazioa izango dut.

### 5.1. DIRU-SARRERA

Estatuko Gizarte Segurantzak, hainbat finantzaketa iturri ditu; nik orokorrenak ikusiko ditut, zehazki bi direnak: Gizarte Segurantzako web orrialdean<sup>7</sup> irakurri dudana bezala, alde batetik, gobernuaren aurrekontuetatik datorren dirua. Eta bestetik, kotizazioetatik datorrena.

<sup>4</sup> 2015/12/30ko Estatuko Aldizkari Ofiziala, 1170/2015eko Errege Dekretua, 2016 urterako Gizarte Segurantzaren Sistemaren pentsioen eta beste gizarte-zerbitzu publiko batzuen birbalorizazioa. <http://www.boe.es/boe/dias/2015/12/30/pdfs/BOE-A-2015-14272.pdf> [2016-10-09an ikusia]

<sup>5</sup> Seguridad Social (2016): Pentsio ez kontributiboak/Motak. [http://www.seg-social.es/Internet\\_4/Pensionistas/Pensiones/ModalidadesClases/index.htm](http://www.seg-social.es/Internet_4/Pensionistas/Pensiones/ModalidadesClases/index.htm) [2016-10-09an ikusia]

<sup>6</sup> 1991/03/21ko Estatuko Aldizkari Ofiziala, 357/1991ko Errege Dekretua, 26/1990eko Legean aipaturiko kotizazio gabeko pentsioen garapena. <https://www.boe.es/boe/dias/1991/03/21/pdfs/A08958-08963.pdf> [2016-10-09an ikusia]

<sup>7</sup> Gizarte Segurantzaren (2016): Gizarte Segurantzaren gela. Irakasleen eremua. 5. unitatea. [http://www.seg-social.es/Internet\\_4/PortalEducativo/Profesores/Unidad5/Financiacion/Fuentes/index.htm](http://www.seg-social.es/Internet_4/PortalEducativo/Profesores/Unidad5/Financiacion/Fuentes/index.htm) [2016-10-09an ikusia]


### 5.1.1. GOBERNUA

2000. urtean Jose Maria Aznar gobernuburu zela, Toledoko paktuaren parte bezala, Gizarte Segurantzaren Erreserba-funtsa sortu zuten, 1/1994ko Legegintzako Errege Dekretuan<sup>8</sup> eta 24/1997ko Legean<sup>9</sup>, Gizarte Segurantzaren Sistema sendotzen eta arrazionalizatzen zuten legedian azaltzen den moduan.

Baina zer da? Aldizkari ofizialeko, 28/2003 legean<sup>10</sup> aipatzen den bezala; “funts berezi bat da, etorkizunean kotizaziopeko prestazioetan sor daitezkeen beharrei aurre egiteko helburuarekin sortu zena. Gizarte Segurantzaren kotizaziopeko pentsioen diru-sarrerara eta gastuen arteko desbiderapenek eragindakoari aurre egiteko sortua.” Edo beste era batera esanda, pasiboek aktiboak gainditzen zituzten unerako. Funtsa, ziklo ekonomiko baxuen efektuak moteltzeko eta pentsio-sistemaren oreka finantzarioa bermatzeko sortu zen. Hau da, biztanleriaren zahartzeak, pentsioen ordainketa arriskuan egon dezakeen unerako, besteak beste.

Ondoren, urtero erreserba-fondoan gelditzen den diru-kopurua ikusi dezakegu.

#### 1.IRUDIA: ERRESERBA-FONDOAN URTERO GELDITZEN DEN DIRU-KOPURUA



Iturria: Gorte Nagusiaren txostena. 2000tik 2015era erreserba-fondoan urtero dagoen zenbateko-kopurua<sup>11</sup>.

2011tik 2015ra diru-kopurua beherantz doa, horrek esan nahi du, gobernua, Rajoy presidente izanda, funts horretatik dirua hartzen egon dela. Hasiera batean, gobernuek dirua txertatzen joan ziren, etorkizunerako koltxoi bat sortuaz. Baina, ez badute funts horretan dirua txertatzen, behin sortutako koltxoi horrek, ez du askorik iraungo, zeren 4 urtetan erreserba-fondoetako %51,39 gastatua baitzegoen.

2016. urtean ere, gobernua dirua atera zuen, uztailean, zehazki 8.700 milioi euro<sup>12</sup>. Horren arrazoia, pentsioak eta uztaileko aparteko ordainsariak ordaintzeko zirela esan zuten.

Hartutako dirua gutxi ez balitz, hilabete berdinean bigarren aldiz sartu zuten eskua erreserba-fondo horretan. Bigarren honetan 1.000 milioi<sup>13</sup> euro hartu zuten,

<sup>8</sup> 1994/06/29ko Estatuko Aldizkari Ofiziala, 1/1994ko Legegintzako Errege Dekretua, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorreko Testu Bategina onartzen den. <https://boe.es/boe/dias/1994/06/29/pdfs/A20658-20708.pdf> [2016-10-09an ikusia]

<sup>9</sup> 1997/07/16ko Estatuko Aldizkari Ofiziala, 24/1997ko Legea, neurri fiskal, administratibo eta ordena sozialekoak. <http://www.boe.es/boe/dias/1997/07/16/pdfs/A21781-21787.pdf> [2016-10-09an ikusia]

<sup>10</sup> 2015/10/31ko Estatuko Aldizkari Ofiziala, 28/2003ko Legea, Gizarte Segurantzaren Erreserba Funtsaren arautzailea. <https://www.boe.es/buscar/pdf/2003/BOE-A-2003-18089-consolidado.pdf> [2016-10-09an ikusia]

<sup>11</sup> Secretaría de Estado de la Seguridad Social (2015): Fondo de Reserva de la Seguridad Social. Informe a las Cortes generales 2015. Ministerio de Empleo y Seguridad Social. <http://www.seg-social.es/prdi00/groups/public/documents/binario/212860.pdf> [2016-10-09an ikusia]

<sup>12</sup> Gómez, M.V. (2016): La Seguridad Social saca otros 8.700 millones del Fondo de Reserva. Ediciones El País S.L. [http://economia.elpais.com/economia/2016/07/01/actualidad/1467388367\\_280629.html?rel=mas](http://economia.elpais.com/economia/2016/07/01/actualidad/1467388367_280629.html?rel=mas) [2016-10-09an ikusia]

pentsiodunen PFEZa likidatzeko. Beraz, fondoan gelditzen den zenbatekoa 24.207 milioi euro (13. aipamen-orria) izango litzateke.

Gizarte Segurantzaren kontua erreferentea da pentsio-sistamarako, beraz 2011tik duen eta urtero gehitzen doan defizitak<sup>14</sup>, pentsio-sisteman antzeman egiten da, erreserba-fondoa gutxituz. Azkeneko datuak ikusirik, bakarrik 5 hilabeterekin, hau da, Uztailak 31ra arte, 5.721,48 milioi euroko<sup>15</sup> eskasiarekin, jakin ahal dezakegu 2015ean izandako defizita gaudituko duela, berriz ere maximo berri bat sortuz. Ondorioz, pentsio-sistemaren eta Gizarte Segurantzako finantzaketaren arazoari lehen bai lehen aurre egitea izugarritzko garrantzia dauka.

Aurretik aipatu bezala, Estatua, Gizarte Segurantzaren finantzatzen duen iturri bat da, 47/2003ko Legean<sup>16</sup> araututa dagoena. Finantzaketa hau, urteroko aurrekontuaren zati bat bertara bideratuz egiten dute. Baina ez dute Gizarte Segurantzako obligazio guztiak finantzatzen, baizik eta horietako batzuk bakarrik; besteak beste; osasun laguntza, pentsioen gutxienetarako osagarriak eta Nagusien eta Gizarte Zerbitzuen Institutuko (IMERSO) aurrekontua<sup>17</sup>.

Pentsioen gutxienetarako osagarriak aztertu baino lehen, gobernuan azken 10 urteetan egondako alderdi ezberdinak eta hauek hartutako bestelako erabakiak aipatuko ditut.

Azken 10 urteetan Gobernuan egon diren alderdiak bi izan dira, 2004tik 2011ra arte PSOE (Partido Socialista Obrero Español), Jose Luis Rodríguez Zapatero buru bezala eta 2011tik 2015 arte, PP (Partido Popular), Mario Rajoy buru bezala.

2004. urtean, lanbide arteko gutxieneko soldata igo zuen, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren web-orrialdean<sup>18</sup> agertzen den bezala. Hilero 460,50€tik, 513,00€ra. Baina, hau ez da PSOEko buruzagiak egingo zuen igoera bakarra. Izan ere, bere legegintzaldia amaitu zen urtera arte, hau da 2011ra arte, urtero igoera bat jasan zuen, non azken urtean 641,40€ izatera iritsi zen, hurrengo taulan ikusten den bezala.

## 1.TAULA: LANBIDE ARTEKO GUTXIENEN SOLDATA (LGS)

URTEA	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016
<b>LGS (€)</b>	460,5	513,0	540,9	570,6	600,0	624,0	633,3	641,4	641,4	645,3	645,3	648,6	655,2

Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioa (2016); Hileroko langileen gutxieneko soldaten zenbatasuna (18. aipamen-oharra)

<sup>13</sup> Gómez, M.V. (2016): La Seguridad Social saca 1.000 millones más del Fondo de Reserva. Ediciones El País S.L. [http://economia.elpais.com/economia/2016/07/20/actualidad/1469027214\\_594467.html?rel=mas](http://economia.elpais.com/economia/2016/07/20/actualidad/1469027214_594467.html?rel=mas) [2016-10-09an ikusia]

<sup>14</sup> Fuentes, A. (2016): El déficit de la Seguridad Social sube hasta 47,3 millones al día. El Periódico de Catalunya, S.L. <http://www.elperiodico.com/es/noticias/economia/deficit-pensiones-seguridad-social-cuentas-futuro-5307079> [2016-10-09an ikusia]

<sup>15</sup> Expansión (2016): La Seguridad Social registra un déficit de 5.721 millones hasta julio, un 29,3 % más que el año pasado. Unidad Editorial Información Económica S.L. <http://www.expansion.com/economia/2016/08/31/57c71ec6e5fdeaa2228b4630.html> [2016-10-09an ikusia]

<sup>16</sup> 2003/11/27ko Estatuko Aldizkari Ofiziala, 47/2003eko Legea, aurrekontu orokorra. <https://boe.es/boe/dias/2003/11/27/pdfs/A42079-42126.pdf> [2016-10-09an ikusia]

<sup>17</sup> Instituto de Mayores y Servicios Sociales (Imsero) (2015): Video corporativo: ¿Qué es el Imsero?. [http://www.imsero.es/imsero\\_01/el\\_imsero/quienes\\_somos/video\\_corporativo/index.htm](http://www.imsero.es/imsero_01/el_imsero/quienes_somos/video_corporativo/index.htm) [2016-10-09an ikusia]

<sup>18</sup> Ministerio de Empleo y Seguridad Social (2016): Evolución Salario mínimo interprofesional \* actualizado 21-enero-2016 \*. <http://www.empleo.gob.es/estadisticas/bel/SML/> [2016-10-09an ikusia]

2008. urtean krisi ekonomikoan murgildu ginen<sup>19</sup>, nahiz eta Europako beste estatu batzuetan baino beranduago izan, bete-bete harrapatu zigun. Beraz, sarrera gehiago izateko, balio erantsiaren gaineko zerga, hau da, BEZa igotzea erabaki zuten, %16tik %18ra<sup>20</sup>. Honek izugarritzko iskanbila ekarri zuen, jende asko kontrari egon baitzen. Hurrengo ondorioak izango zituela arrazoituz:

- “Kontsumoaren jaistea.
- Langabeziaren igoera.
- Kontsumitzaileengan eragin negatiboa.
- Erosahalmenaren murriztapena desberdintasun sozial gehiago.” (20. aipamen-oharra)

Espainiako Merkataritza-gune elkarteak (AECC)-k esan zuen, zergaren igoerak, guztira 4.000 milioi euroko prezio gehikuntza bat ekarriko zuela.

2010. urteko maiatzean, zegoen defizitari aurre egiteko helburuarekin, funtzionarioen soldata, batez beste %5ean murriztu zuten, goi-karguena ere %10, %9 edo %8an, zuten mailaren arabera, eta baita gobernuarena ere, %15ean hurrenez hurren, 2010/05/26ko Estatuko Aldizkari Ofizialean<sup>21</sup> idatzia dagoena.

2010. urteko ekainean, lan-erreforma berri bat onartu zen 10/2010 Errege Lege Dekretuaren<sup>22</sup> bidez. Bertan, beharrezkoa ikusi zutela adierazten dute, arrazoituz, nola azken bi urtetan, 2 milioi lanpostu galdu ziren eta langabezia bikoiztu, ia 2 milioi eta erdira iritsi arte. Baina jende asko, horietako bat, LAB sindikatua aurka zegoen, horregatik txosten bat argitaratu zuten; *lan erreforma: gure eskubideen aurkako eraso larria*<sup>23</sup> izenekoa. Txostenean, ados ez zeudela azaltzen du eta baita bere zergatia. Bertan, arrazoi nagusi hauek aipatzen dute:

- “Kaleratzea errazagoa eta merkeagoa izango zela.
- Aldi baterako kontratazioa bultzatuaz, prekaritatea finkatzea eragiten zuela.
- Dirua irabazteko asmoa duten enplegu-agentziak legezkatuz, lan-bitartekotza merkantilizatu egingo zela.”

2011. urtean, kotizaziopekoaren pentsioa, hau da, ordaindutakoaren araberrako pentsio-izoztea erabaki zuten<sup>24</sup>.

2011 hasieran ere, Gobernuak, sindikatuak eta ugazabak akordio batera iritsi ziren, pentsioen sistema publikoa sendotzeko helburuarekin. Sistema berria aplikatzeko, 15 urteetako trantsizio bat izatea pentsatu zuten, 2013an hasi eta 2027an amaituz, horrela aldatetako izugarritzko eragina izango ez zuela pentsatzen zuten. Bertan kotizatutako denboraldia eta adina hartzen dira kontutan.

<sup>19</sup> De Pablo Madariaga, A (2010): *Ekonomia: 2008-2010eko krisialdi ekonomikoa*. Deusto's Littera Media. <https://litteramedia.wordpress.com/2010/12/15/ekonomia-2008-2010eko-krisialdi-ekonomikoa/> [2016-10-09an ikusia]

<sup>20</sup> Pico Rada, P (2012): *Sube el IVA, ¿cómo afecta al consumidor?* Eroski Consumer. [http://www.consumer.es/web/es/economia\\_domestica/finanzas/2012/07/12/211167.php](http://www.consumer.es/web/es/economia_domestica/finanzas/2012/07/12/211167.php) [2016-10-09an ikusia]

<sup>21</sup> 2010/05/26ko Estatuko Aldizkari Ofiziala, 2010eko maiatzaren 26ko Ebazpena, Estatuko Ogasunaren eta Aurrekontuaren Idazkaritza. <http://boe.es/boe/dias/2010/05/26/pdfs/BOE-A-2010-8386.pdf> [2016-10-09an ikusia]

<sup>22</sup> 2010/06/17ko Estatuko Aldizkari Ofiziala, 10/2010eko Errege Lege Dekretua, lan-merkatuaren erreformarako berehalako neurriak. <http://www.boe.es/boe/dias/2010/06/17/pdfs/BOE-A-2010-9542.pdf> [2016-10-09an ikusia]

<sup>23</sup> LAB sindikatuaren txostena (2010): *Lan erreforma: gure eskubideen aurkako eraso larria*. LAB. <http://www.lab.eus/es/iparhegoa-publicaciones/cuadernos-sindicales/juridikoak/1360-lan-erreforma-gure-eskubideen-aurkako-eraso-larria-la-reforma-laboral-un-grave-ataque-a-nuestros-derechos-2010> [2016-10-09an ikusia]

<sup>24</sup> El mundo (2010): *Unidad Editorial Internet, S.L.* <http://www.elmundo.es/mundodinero/2010/05/12/economia/1273650090.html> [2016-10-09an ikusia]

## 2.TAULA: KOTIZATUTAKO DENBORALDIA ETA ADINA

Urtea	Kotizatutako denboraldia	Adina
2013	35 urte eta 3 hilabete edo gehiago	65 urte
	35 urte eta 3 hilabete baino gutxiago	65 urte eta 1 hilabete
2014	35 urte eta 6 hilabete edo gehiago	65 urte
	35 urte eta 6 hilabete baino gutxiago	65 urte eta 2 hilabete
2015	35 urte eta 9 hilabete edo gehiago	65 urte
	35 urte eta 9 hilabete baino gutxiago	65 urte eta 3 hilabete
2016	36 urte edo gehiago	65 urte
	36 urte baino gutxiago	65 urte eta 4 hilabete
2017	36 urte eta 3 hilabete edo gehiago	65 urte
	36 urte eta 3 hilabete baino gutxiago	65 urte eta 5 hilabete
2018	36 urte eta 6 hilabete edo gehiago	65 urte
	36 urte eta 6 hilabete baino gutxiago	65 urte eta 6 hilabete
2019	36 urte eta 9 hilabete edo gehiago	65 urte
	36 urte eta 9 hilabete baino gutxiago	65 urte eta 8 hilabete
2020	37 urte edo gehiago	65 urte
	37 urte baino gutxiago	65 urte eta 10 hilabete
2021	37 urte eta 3 hilabete edo gehiago	65 urte
	37 urte eta 3 hilabete baino gutxiago	66 urte
2022	37 urte eta 6 hilabete edo gehiago	65 urte
	37 urte eta 6 hilabete baino gutxiago	66 urte eta 2 hilabete
2023	37 urte eta 9 hilabete edo gehiago	65 urte
	37 urte eta 9 hilabete baino gutxiago	66 urte eta 4 hilabete
2024	38 urte edo gehiago	65 urte
	38 urte baino gutxiago	66 urte eta 6 hilabete
2025	38 urte eta 3 hilabete edo gehiago	65 urte
	38 urte eta 3 hilabete baino gutxiago	66 urte eta 8 hilabete
2026	38 urte eta 3 hilabete edo gehiago	65 urte
	38 urte eta 3 hilabete baino gutxiago	66 urte eta 10 hilabete
2027tik aurrera	38 urte eta 6 hilabete edo gehiago	65 urte
	38 urte eta 6 hilabete baino gutxiago	67 urte

Iturria: 27/2011ko Legea, Estatuko Aldizkari Ofizialeko 4. artikuluan argitaratua, kotizatu beharreko urte-kopurua eta izan beharreko adina<sup>25</sup>.

2012tik 2015era arte, aurretik esan bezala, PP (Partido Popular) izan dugu, Mario Rajoy buru dela. Bere legegintzaldian politika ezberdinak erabili zituen, Estatuak zuen defizita murrizteko. Alde batetik, funtzionarioen soldatak izoztuak jarraitzen zuten eta hau gutxi ez balitz, aparteko ordainsaria ere kendu zitzaien. Gainera, zergak igotzeko akordio batera iritsi ziren, BEZa % 18tik % 21era.

Kasu honetan produktuengatik, BEZaren igoerek familia bakoitzak Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen antolakuntzaren (OCUren) arabera 288,54€ko<sup>26</sup> gastu gehigarria izango zutela estimatu zuten.

Baina zergaren igoera beharrezkoa zela ikusi zuten, zeren gobernuak, 5.150 milioi euro<sup>27</sup> gehiago lortuko zutela urtero azaltzen baitzuten, beraz zegoen defizita zela eta, sarrera garrantzitsua zela ikusi zuten. Hala ere, ez zuten kontuan izan, gero eta zerga gehiago egonez gero, jendeak gehiago saihesten saiatuko zirela. 2013ko datuetan, BEZaren iruzurra, urtero 17.176 milioi eurokoa<sup>28</sup> zen.


<sup>25</sup> 2011/08/02ko Estatuko Aldizkari Ofiziala, 27/2011ko Legea, Gizarte Segurantzako sistemaren eguneratze, egokitze eta modernizazioari buruzkoa . <http://boe.es/boe/dias/2011/08/02/pdfs/BOE-A-2011-13242.pdf> [2016-10-09an ikusia]

<sup>26</sup>OCU (2010): Subida del IVA: cómo afecta al consumidor. OCU Ediciones, S.A <https://www.ocu.org/dinero/renta-impuestos/noticias/subida-del-iva-como-afecta-al-consumidor491124> [2016-10-09an ikusia]

<sup>27</sup> Folgado, R. (2010): ¿Cómo le afecta la inminente subida del IVA?. Unidad Editorial Internet, S.L. <http://www.expansion.com/2010/05/15/economia-politica/1273936320.html> [2016-10-09an ikusia]

<sup>28</sup> Expansión (2013): Gestha: el fraude fiscal ha dejado sin efecto la subida del IVA de 2010. Unidad Editorial Internet, S.L. <http://www.expansion.com/2013/06/06/economia/1370512421.html> [2016-10-09an ikusia]

## 2.IRUDIA: FAMILIAGATIKO BATEZ BESTEKO URTEROKO GASTUA



Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala (2016), 2006tik 2015era arte Espainian familiek egin duten batez besteko urteroko gastua<sup>29</sup>.

Goiko irudian islatzen den bezala, 2008. urtetik familiako batez besteko gastua jaisten joan zen 2013ra arte eta ordutik, pixkanaka berreskuratzen doala ikusi dezaket. 2008ko jaitsiera horren arrazoiak bi; alde batetik, krisiaren agerpena da, eta bestetik, BEZaren igoera, beste arrazoi batzuen artean. Krisiarekin batera, jendearen beldurra ere hasi zen. Ekonomikoki kontserbadoreagoak bilakatu ginen eta saihestu ahal genezakeen gastuak, saihesten hasi ginen. Merkatura joaterako orduan, prezioa begiratzen genuen gehiago eta ez hainbeste marka.

Bederen, 2014. urtean familiagatiko batez besteko gastua igo egin zen. Datu hauek oso interesgarriak dira, zeren familiek, estatuaren erreflexua baitira. Bat hobetzean, orokorki bestea ere hobetuko delako.

Pentsioei buruz hitz egiterakoan, 2012an hartutako beste erabakietako bat, pentsio guztien gutxienekoa igotzea izan zen, zehazki % 1ean, aurreko legegintzalditik izoztuak baitzeuden eta inflazio bat egongo zela estimatzen zuelako<sup>30</sup>. Bestetik, langabeziako sorospena %10ean<sup>31</sup> murriztea onartu zuen, seigarren hilabetetik aurrera, oinarri arautzailean %60tik %50ra jaitsiaz. Egindako murrizketaren arrazoia, lanaren bilaketa aktiboa sustatzea zela zioen Rajoyk.

Urte horretan, erretirodunek lehengo aldiz ordaindu behar izan zuten beraien botikak, baina ez 100%, baizik eta balio zuenaren %10a<sup>32</sup>. Nahiz eta % gutxi izan, erretirodun askok, botika ugari erostera behartuta ikusten dira, duten osasun arazoak direla eta. Ondorioz, geroztik farmazietan diru asko gastatu behar izan dute, beraientzako gastu esanguratsuan bilakatuz.

<sup>29</sup> Instituto Nacional de Estadística (2016). Gasto total y gastos medios de los hogares <http://www.ine.es/jaxiT3/Datos.htm?t=10722> [2016-10-09an ikusia]

<sup>30</sup> Expansión (2012): Las pensiones suben una media del 1% y las mínimas un 2,9%. Unidad Editorial Información Económica, S.L. <http://www.expansion.com/2012/01/01/portada/1325412308.html> [2016-10-09an ikusia]

<sup>31</sup> Los nuevos parados verán reducida su prestación a partir del sexto mes (2012). La Vanguardia Ediciones. <http://www.lavanguardia.com/politica/20120711/54323649982/nuevos-parados-veran-reducida-prestacion-sexto-mes.html> [2016-10-09an ikusia]

<sup>32</sup> Gonzalez, M. (2012): Los jubilados deberán pagar el 10% del coste de las medicinas. Ediciones El País S.L. [http://sociedad.elpais.com/sociedad/2012/04/18/actualidad/1334718526\\_434485.html](http://sociedad.elpais.com/sociedad/2012/04/18/actualidad/1334718526_434485.html) [2016-10-09an ikusia]

2013. urtean pentsio-sistemaren erreforma bat egon zen, 23/2013 Legean<sup>33</sup> onartua izan zena, non bertan aldaketa garrantzitsuak ekarri zituen eta 2014ko urtarrilak leian indarrean jarri zena. Alde batetik, Estatuko Aldizkari Ofizialean aipatzen den bezala, “Gizarte Segurantzaren pentsio-sistemaren jasangarritasun faktorea, pentsioaren zenbatekoa neurtzeko (baina ez da erretiro-pentsioaren araubide juridikoan aldaketa zehatza, baizik eta hura automatikoki doitzeko tresna, orain arte kontuan hartu ez den bizi-itxaropenaren aldagaia gogoan izanda)” (23/2013 Legea). Eta bestetik Errebalorizazio Indizearen erabilera, non 2013. urtera arte, erabili den kontsumo-prezioen indizea ordezkatzeko duena.

“Helburua da sistemari egiten zaizkion kotizazioen eta jasotzea espero diren prestazioen arteko proportzionaltasunari eustea, oraingo eta etorkizuneko belaunaldiek erretiro-pentsio egoki eta nahikoak jaso ditzaten, Espainiako Konstituzioaren 50. artikulua erabiltzeko arabera.” (33. aipamen-oharra)

### ➤ ERREBALORIZAZIO INDIZEA

Aldizkari ofizialean azaltzen da, “erretiro-pentsioen aldizkako errebalorizazioa aurreikusitako kontsumoko prezioen indizearen arabera eguneratzea ezartzen badu ere, lotura hori zalantzan jartzen hasi da, aipatutako demografia- eta ekonomia-arazoen ondorioz”. Beraz, pentsioen gaurkotze sistema berria da, orain arteko kontsumo-prezioaren indizeari ordezkatzeko diona.

Indizearen aldaketa bat zetorrela suposatzen genuen, izan ere, Toledoko Itunaren Ebaluazio eta Erreforma Txosteneko bigarren gomendioan, 2011ko urtarrilaren 25ean, indizearen aldaketa bat egokia izango zela aipatzen baitzen.

1997tik kontsumo-prezioaren indizea (IPC) erabili izan da. Kotizaziopeko pentsioak, gobernuak urte horretarako zituen inflazio aurreikuspenen arabera, pentsioak igotzen zituen eta beste pentsioaren zenbatekoa, kontsumorako prezioen indizearen, maila ertaineko soldataren igoeraren eta ekonomiaren bilakaera orokorraren arabera zen (1994/06/29ko Estatuko Aldizkari Ofiziala, 48. artikulua). Baina 2013tik aurrera, “Gizarte Segurantzako kotizaziopeko erretiro-pentsioak, gutxieneko erretiro-pentsioaren zenbatekoa barne, urte bakoitzaren hasieran handituko dira, urteko Estatuaren Aurrekontu Orokorraren Legean aurreikusitako errebalorizazio-indizearen arabera”(33. aipamen-oharra).

Indize honek, Gizarte Segurantzako pentsioen zenbatekoa kalkulatzeko, formula konplexu bat erabiltzen da, bertan, hainbat faktoreko bilakaera kontuan hartzen du, adibidez, Gizarte Segurantzaren sistemaren diru-sarreraren aldaketa-tasa. Baina urtero gutxieneko zenbatekoa, ehuneko 0,25eko igoera izango duela bermatzen du. Hala ere, igoko den ehuneko ez da, aurreko urtean izandako kontsumoko prezioen indizeak izandakoaren maximoa baino ehuneko 0,5 baino gehiago izango (23/2013 Legeko 48. artikulua).

---

<sup>33</sup> 2013/12/26ko Estatuko Aldizkari Ofiziala, 23/2013 Legea, abenduaren 23koa, Gizarte Segurantzaren Pentsio Sistemaren Jasangarritasun Faktorea eta Errebalorizazio Indizea arautzen dituen. [https://www.boe.es/boe\\_euskera/dias/2013/12/26/pdfs/BOE-A-2013-13617-E.pdf](https://www.boe.es/boe_euskera/dias/2013/12/26/pdfs/BOE-A-2013-13617-E.pdf) [2016-10-09an ikusia]

Aurreko indizearekin duen desberdintasunik nabarmenena, honek ez duela pentsiodunen erosahalmena bermatzen eta besteak bai<sup>34</sup>. Hau da, bestean, gobernuak inflazioa egongo zela aurreikusten bazuen ehuneko berdinean igotzen ziren pentsioak. Baina kasu honetan, naiz eta inflazioa igo, gerta daiteke pentsioen igoera horrenbestekoa ez izatea eta erosketa ahalmena galtzea. Esate baterako, inflazioa ehuneko 1,2a igotzea espero bada eta pentsioak 0,25 igotzen badira, erosahalmena galtzen da. Hala ere, erosahalmena igotzea posible da, betiere errebalorizazio indizea, kontsumo-prezioaren indizea baino handiagoa den bitartean.

#### ➤ GIZARTE SEGURANTZAREN PENTSIOSISTEMAREN JASANGARRITASUN FAKTOREA

Aldizkari ofizialean honela definitzen da: “Jasangarritasun-faktorea Gizarte Segurantzako sistemaren erretiro-pentsioen zenbatekoa pentsiodunen bizi-itxaropenaren bilakaeraren arabera automatikoki kalkulatzeko tresna da. Arau honetan ezarritako formularen bitartez egingo da hori, eta egoera antzekoetan baina erretiroa denbora-une ezberdinetan hartzen dutenen zenbatekoa doitu da” (36. aipamen-oharra).

Beraz faktore honek erretiro-pentsioei bakarrik eragiten die, zenbatekoa ezartzerako unean, biztanleriaren bizi-itxaropenera moldatuz. Baina faktore hau ere ez dugu lehengo aldiz entzuten, izan ere, 2011an onartutako erreforman agertu zen, baina bertan ez zen ezer zehazten, bakarrik bizi-itxaropenaren bilakaeraren mendean egongo zela aipatzen zuen eta zenbatero berrikusiko zen, 5 urtetik behin<sup>35</sup>.

Faktorea aplikatzeko urtea, 2019.ana izango da, 5 urtetik behin berrikusiko dena, erretiro-pensio berriaren hasierako zenbatekoa ezartzeko (23/2013 Legea). Berrespen horiek egiteko, organismo ofizial eskudunek egindako aurreikuspenak erabiliko dira, institutu estatistikako ofizialaren, hau da, Estatistikako Institutu Nazionalaren proiektzio demografikoak erabiliz.

“Bestalde, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 18.3 artikulua aurreikusten duenez, Gobernuak, erretiro-pentsioen sistemari epe luzean defizita izango dela aurreikusten badu, sistema berrikusiko du eta automatikoki aplikatuko dio jasangarritasun-faktorea, abuztuaren 1eko 27/2011 Legean aurreikusitako moduan” (36. aipamen-oharra).

Zenbatekoa ezartzeko, hemen ere formula matematikoa aplikatzen da, bertan bi elementu hartuko dira kontuan: Gizarte Segurantzako sistemaren pentsiodun herritarren heriotza-taulak eta 67 urteko adina hartuko da erreferentzia modura (23/2013 Legeko 3. artikulua).

23/2013ko Legea aplikatuz, 2014tik 2022ra bitartean, kutxa publikotik 32.939,95 milioi euroko<sup>36</sup> aurrekia ekarriko duela estimatzen dute, beheko taulak agertzen den bezala.

<sup>34</sup> Manjón, P.L. (2013): Las claves de la última reforma de las pensiones, que ya no se revalorizarán con el IPC. Corporación de Radio y Televisión Española 2016 <http://www.rtve.es/noticias/20131231/claves-ultima-reforma-pensiones-ya-no-se-revalorizaran-ipc/747354.shtml> [2016-10-09an ikusia]

<sup>35</sup> Seguridad Social Activa (2015): ¿Cómo se aplica el factor de sostenibilidad en Europa? [http://www1.seg-social.es/ActivaInternet/BuenasPracticas/REV\\_031174](http://www1.seg-social.es/ActivaInternet/BuenasPracticas/REV_031174) [2016-10-09an ikusia]

<sup>36</sup> Consejo económico y social (2013): memoria del análisis de impacto normativo del anteproyecto de ley reguladora del factor de sostenibilidad y del índice de revalorización del sistema de la Seguridad Social. <http://www.uv.es/pensiones/docs/factor-sostenibilidad/Memoria.pdf> [2016-10-09an ikusia]

### 3.TAULA: 2014 ETA 2022 URTE BITARTEAN KUTXA PUBLIKOTIK AURREZTU DEN ZENBATEKOA

URTEAK	GIZARTE-SEGURANTZAREN DESOREKAREN URTEROKO MURRIZTAPENA (MILIOI EURO)
2014	-809,60
2015	-1.639,74
2016	-2.490,21
2017	-3.359,38
2018	-4.241,83
2019	-5.008,70
2020	-5.234,13
2021	-5.225,11
2022	-4.931,25

Iturria: Inpaktu arauemaileko legearen aurreproiektuaren analisiaren errealizazio indizearen eta Gizarte Segurantzaren pentsio-sistemaren jasangarritasun faktorearen memoria erregulatuak (2013) (34. aipamen-oharra)

Espanian egon diren gobernuen bilakaerari jarraituz, 2015eko abenduaren 20an egin ziren azken hauteskundeak, baina alderdi politiko batek ere ez zuen gehiengorik lortu. Beraz, berain artean akordioak lortzen saiatzen hasi ziren behin 2016. urtean sartuta. Hala ere, akordio batera iritsi ez zirenez, 26ko ekainean hauteskundeak errepikatuz behartuak ikusi ginen. Bigarren hauteskundeetan ere inork ez zuen gehiengorik lortu eta beraz akordio batera iristera behartuta ikusi dira. Baina urtea amaitzen doan heinean, oraindik ere gobernurik gabe aurkitzen gara, biztanleriaren haserrea areagotuz, hirugarren hauteskunde bat izatera bultzatzen digutelako.

### 4.TAULA: ESTATUAK AURREKONTU BIDEZ GIZARTE SEGURANTZARI TRANSFERITUTAKO ZENBATUSUNA

URTEA	MILA EURO
2006	1.506.350,00 € <sup>37</sup>
2007	1.806.350,00 € <sup>38</sup>
2008	2.106.350,00 € <sup>39</sup>
2009	2.406.350,00 € <sup>40</sup>
2010	2.706.350,00 € <sup>41</sup>
2011	2.806.350,00 € <sup>42</sup>
2012	3.806.350,00 € <sup>43</sup>
2013	7.895.330,00 € <sup>44</sup>
2014	7.633.020,00 € <sup>45</sup>
2015	7.563.020,00 € <sup>46</sup>

Iturria: Urteroko gobernuaren aurrekontuak, Estatuko Aldizkari Ofiziala. Estatuak Gizarte Segurantzari minimoetarako osagarriak estaltzeko transferitutako zenbatusuna.

<sup>37</sup> 2005/12/30ko Estatuko Aldizkari Ofiziala, 30/2005eko Legea, 2006.urterako Estatuaren Aurrekontu Orokorra. <https://www.boe.es/buscar/pdf/2005/BOE-A-2005-21525-consolidado.pdf> [2016-10-09an ikusia]

<sup>38</sup> 2006/12/29ko Estatuko Aldizkari Ofiziala, 42/2006ko Legea, 2007.urterako Estatuaren Aurrekontu Orokorra. <https://www.boe.es/boe/dias/2006/12/29/pdfs/A46226-46444.pdf> [2016-10-09an ikusia]

<sup>39</sup> 2007/12/27ko Estatuko Aldizkari Ofiziala, 51/2007ko Legea, 2008.urterako Estatuaren Aurrekontu Orokorra. <https://www.boe.es/boe/dias/2007/12/27/pdfs/A53286-53409.pdf> [2016-10-09an ikusia]

<sup>40</sup> 2008/12/24ko Estatuko Aldizkari Ofiziala, 2/2008ko Legea, 2009.urterako Estatuaren Aurrekontu Orokorra. <https://www.boe.es/boe/dias/2008/12/24/pdfs/A51773-51897.pdf> [2016-10-09an ikusia]

<sup>41</sup> 2009/12/24ko Estatuko Aldizkari Ofiziala, 26/2009ko Legea, 2010.urterako Estatuaren Aurrekontu Orokorra. <https://www.boe.es/boe/dias/2009/12/24/pdfs/BOE-A-2009-20765.pdf> [2016-10-09an ikusia]

<sup>42</sup> 2010/12/23ko Estatuko Aldizkari Ofiziala, 39/2010eko Legea, 2011.urterako Estatuaren Aurrekontu Orokorra. <http://www.boe.es/boe/dias/2010/12/23/pdfs/BOE-A-2010-19703.pdf> [2016-10-09an ikusia]

<sup>43</sup> 2012/06/30ko Estatuko Aldizkari Ofiziala, 2/2012ko Legea, 2012.urterako Estatuaren Aurrekontu Orokorra. <https://www.boe.es/boe/dias/2012/06/30/pdfs/BOE-A-2012-8745.pdf> [2016-10-09an ikusia]

<sup>44</sup> 2012/12/28ko Estatuko Aldizkari Ofiziala, 17/2012ko Legea, 2013.urterako Estatuaren Aurrekontu Orokorra. <https://www.boe.es/boe/dias/2012/12/28/pdfs/BOE-A-2012-15651.pdf> [2016-10-09an ikusia]


<sup>45</sup> 2013/12/26ko Estatuko Aldizkari Ofiziala, 22/2013ko Legea, 2014.urterako Estatuaren Aurrekontu Orokorra. <https://www.boe.es/boe/dias/2013/12/26/pdfs/BOE-A-2013-13616.pdf> [2016-10-09an ikusia]

<sup>46</sup> 2014/12/30ko Estatuko Aldizkari Ofiziala, 36/2014ko Legea, 2015.urterako Estatuaren Aurrekontu Orokorra. <https://www.boe.es/boe/dias/2014/12/30/pdfs/BOE-A-2014-13612.pdf> [2016-10-09an ikusia]

Behin 2004.urtetik nolako politikak izan ditugun ikusi ondoren, urtero aurrekontuetan, minimoetarako osagarriak estaltzeko zenbateko dirutza transferituko duten Gizarte Segurantzara ikusi dut (4. taulan agertzen den bezala). Horretarako BOE-n, hau da, Estatuko Aldizkari Ofiziala erabili dut iturri gisa. Taulan ikusi dezaket 9 urtetan izugarritzko igoera izan dela. Urtero, 300.000.000€ igotzen zihotan 2010. urtera arte, ondoren igotzen jarraitzen zuen baina ez horrenbeste, nahiz eta 2012tik 2013ra arte hazkunderik nabariena izan zuen, zehazki 4.088.980.000,00€koa. Hortik aurrera finantzaketa pixkanaka-pixkanaka jaisten ari da.

Beste ikuspuntu batetik ikusirik, kotizazioaren eta estatuaren ekarpena konparatuz, minimoetarako osagarrien finantzaketa, kotizazioaren zenbatekoa, hasiera batean, gehiengoa kotizazioen bidez lortzen zen, 2012ra arte (gero bakarrik Estatu baina iturri bakarra), 3. Irudian ikusten den bezala.

### 3.IRUDIA: ESTAUAREN EKARPENA ETA KOTIZAZIOENA



Iturria: Gizarte Segurantzaren minimoetarako osagarrien finantzaketa, estatuaren eta kotizazioen ekarpenen bidez<sup>47</sup>.

Pentsioen diru sarreretan, kotizazioak eragina duela ikusirik, aztertzeko hurrengo aldagaia izan daiteke.

#### 5.1.2. KOTIZAZIOAK

Kotizatze beharra lan-jarduera hasten denetik sortzen da. Baina ez da bakarrik lan-jarduera hastean kotizatu behar, baizik eta, besteak beste; amatasunean, aldi baterako ezintasunean, ... egoeretan ere kotizatze beharra dago, Gizarte Segurantzaren web orrialdean<sup>48</sup> ongi azaltzen den bezala.

Kotizazioa oso ezaugarri garrantzitsua da pentsioei buruz hitz egitean, eta beraz, sakonago azaltzea komenigarria dela uste dut. Izan ere, kotizaziotik lortzen den diruak, pentsioei ordaintzerako orduan, pisu handia dute, sarrera garrantzitsua baita. Nahiz eta ezinezkoa izan informazio guztia biltzea, zeren ezaugarri askok eragiten baitio, ezagunenak aztertuko ditut; soldaten batez bestekoa, langabezia, langile-kopurua eta enpresak.

<sup>47</sup> Ministerio de Empleo y Seguridad Social (2013): Guía práctica de la Seguridad Social en España [http://www.empleo.gob.es/es/mundo/consejerias/archivoscomunes/GUIA\\_seguridad\\_social\\_SEPT\\_2013.pdf](http://www.empleo.gob.es/es/mundo/consejerias/archivoscomunes/GUIA_seguridad_social_SEPT_2013.pdf) [2016-10-09an ikusia]

<sup>48</sup> Seguridad Social (2016). Langileak: Kotizatze beharra. [http://www.seg-social.es/Internet\\_4/Trabajadores/CotizacionRecaudaci10777/Areainformativa/Laobligaciondecotiz4903/index.htm](http://www.seg-social.es/Internet_4/Trabajadores/CotizacionRecaudaci10777/Areainformativa/Laobligaciondecotiz4903/index.htm) [2016-10-09an ikusia]

### 5.1.2.1. SOLDATAREN BATEZ BESTEKOA

Soldatak gordinak edo garbiak izan daitezke. Nik gordina erabiliko dut, zergarik edo kenkaririk kendu gabe kalkulatzeko dena. Garbia aldiz, behin kendu beharrekoa kendu ostean, gelditzen den diru kantitateari esaten zaio.

Batez besteko soldata gordinaren datuak bilatzeko, Estatistikako Institutu Nazionalera (INE) jo dut, bertan 2006tik 2012ra arte izandako soldataren batez bestekoa ikusteko. Aipatu beharra dut, soldata hauek bi sexuen arteko batez bestekoa dela, izan ere, bananduta egingo banu, emakumeen soldata, gizonezkoarena baino baxuagoa izango litzatekeelako. Bi sexuen arteko aldea nabarmena da, zeren 2013. urtean lan berdinatik, 5.744 euroko<sup>49</sup> aldea baitzegoen.

### 5.TAULA: BATEZ BESTEKO SOLDATA GORDINA

Urtea	Batez besteko soldata gordina
2006	19.680,88 €
2007	20.390,35 €
2008	21.883,42 €
2009	22.511,47 €
2010	22.790,20 €
2011	22.899,35 €
2012	22.726,44 €
2013	22.697,86 €
2014	22.605,79 €

Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala (INE).2006. urtean<sup>50</sup>, 2007. urtean<sup>51</sup>, 2008. urtetik 2013. urtera arte<sup>52</sup> eta 2014. urtean<sup>53</sup> Espainian izan den batz besteko soldata gordina.

Hasiera baten, Espainian izan dugun batez besteko soldata gordinaren kopurua, 2006tik 2011ra arte gorakada bat eman zen, zeren Zapateroren politikaren ondorioz, lanbide arteko gutxieneko soldatak igo baitzituen. Baina, 2012tik 2014ra arte jaitsiera bat ikusten da, nahiz eta asko ez izan. Horrek esan nahi du, 2011tik Espainiako langileen batez besteko soldatak behera egin zutela.

### 5.1.2.2. LANGABEZIA

Langabezia-kopurua ikusteko, EPARA (La Encuesta de Población Activa) joan naiz, “Bere helburu nagusia, biztanleriaren datuak lan-merkatuarekin erlazionatzea da: okupatuak, aktiboak, langabetuak eta ez-aktiboak”<sup>54</sup>.

Datuak, INEMek ateratzen duenaren ezberdinak dira, izan ere, INEMen agertzen diren zenbatekoak, bakarrik enpleguko bulego publikoan izena emanda daudenak dira eta ez dute beste kolektiborik kontuan hartzen. EPAn aldiz, 200.000 pertsonako lagina

<sup>49</sup> Sahuquilo, Maria R. (2013): Las mujeres ganan 5.744 euros menos al año que los hombres por trabajos iguales. Ediciones El País S.L. [http://sociedad.elpais.com/sociedad/2013/02/18/actualidad/1361209773\\_829503.html](http://sociedad.elpais.com/sociedad/2013/02/18/actualidad/1361209773_829503.html) [2016-10-09an ikusia]

<sup>50</sup> Instituto Nacional de Estadística (2008): Encuesta de Estructura Salarial 2006. Resultados definitivos. <http://www.ine.es/prensa/np525.pdf> [2016-10-09an ikusia]

<sup>51</sup> Instituto Nacional de Estadística (2009): Encuesta Anual de Estructura Salarial 2007. <http://www.ine.es/prensa/np568.pdf> [2016-10-09an ikusia]


<sup>52</sup> Instituto Nacional de Estadística (2016): Encuesta anual de estructura salarial. Serie 2008-2013. <http://www.ine.es/jaxi/Datos.htm?path=/t22/p133/cno11/serie/10/&file=02004.px> [2016-10-09an ikusia]

<sup>53</sup> Instituto Nacional de Estadística (2015): Encuesta Anual de Coste Laboral Año 2014. <http://www.ine.es/prensa/np923.pdf> [2016-10-09an ikusia]

<sup>54</sup> Instituto Nacional de Estadística (2016). Sección prensa. Encuesta de Población Activa (EPA). [http://www.ine.es/prensa/epa\\_prensa.htm](http://www.ine.es/prensa/epa_prensa.htm) [2016-10-09an ikusia]

dute eta hiruhileko galdeketa bat eginez lortzen da informazioa. Bigarrenago hau osagarriago denez, iturri hau hautatu dut, langabeziak izan duen bilakaera ikusteko.

#### 4.IRUDIA: ESPAINIAKO LANGABEZIA



Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala, 2006tik 2015era arte Espainian dauden langabetu-kopurua<sup>55</sup>.

Langabezia 2006an 1.840.900 pertsonan kokatzen zen, eta 9 urtetan, 5.560.000 pertsona izatera iritsi zen. 2013urtera arte, urtero hazkunde bat eman zen, azken bi urtetan pixkanaka-pixkanaka beherantz eginez. Hazkunderik nabarmenena 2008tik 2009ra bitartean aurkitzen da, zehazki krisi ekonomikoak eragin zuen unean. Urte horretan ere, lanaren suntsiketaren lehen seinaleak hasi ziren, zehazki 770.900<sup>56</sup> lanpostu suntsitu baitziren.

2013tik aurrera, lehen esan bezala jaisten doa. Lehengo urtean nahiko murrizketa handia izan zuen, zeren ia 450.000 pertsonen aldeba baitzegoen. Baina hurrengo urtean jaitsiera motelagoa izan zuen, ia 50.000 pertsonara iritsiz. Ondorioz ulertzen da, bilakaera jarraituz, hurrengo urteetan langabeziaren tasek behera jarraituko dutela eta beraz, gero eta jende gehiagok bilatuko dutela lana.

Esan beharra dago, zatirik okerreza gazteek eraman zutela eta eramaten ari direla, langabezia gehiena kategorian horretan aurkitzen baita. Horregatik, pertsona multzo hori aztertzea interesgarria dela pentsatzen dut, zeren etorkizunean beraiek izango baitira ekonomia aurrera eramango dutenak eta Gizarte Segurantzaren kotizatuko dutenak.

##### 5.1.2.2.1. GAZTEEN LANGABEZIA

Bizi izan dugun edo bizitzen ari garen krisi ekonomikoaren ondorioak, gazteengan eragin negatibo larriak izan ditu eta izaten ari dira. Izan ere, gradua edo ikasten ari diren ikasketak amaitu ostean, lana aurkitzeko izugarriko zailtasunak izaten dituzte.

Lana aurkitzen duten “zorioneko” pertsonak, asko prekarioak izaten dira eta beraz, irabazten duten soldata oso baxua da. Esaterako, 2014ko lehen hiruhilekoan argitaratutako ikerketa batean, 25 urtetik behera duten langileen urteroko soldata, 9.377,08 eurokoa<sup>57</sup> da.


<sup>55</sup> Instituto Nacional de Estadística (2016). Media de los cuatro trimestres del año. Parados. <http://www.ine.es/jaxiT3/Tabla.htm?t=4886&L=0> [2016-10-09an ikusia]

<sup>56</sup> L. M (2014): La destrucción de empleo es la más baja desde 2008. Dipluripsa, S.L. [http://www.teinteresa.es/empleo/destruccion-empleo-baja-2008-paro-EPA\\_0\\_1129087362.html](http://www.teinteresa.es/empleo/destruccion-empleo-baja-2008-paro-EPA_0_1129087362.html) [2016-10-09an ikusia]

<sup>57</sup> Consejo de la Juventud de España (2014): Observatorio de Emancipación España. 1er trimestre 2014. <http://www.cje.org/descargas/cje5574.pdf> [2016-10-09an ikusia]

Hartutako lagina, 16-24 urte artean duten pertsonenak dira. Gazteen langabeziaren igoera 5 urtetan zehar ematen da, 2007tik hasita.

### 5. IRUDIA: ESPAINIAKO GAZTEEN LANGABEZIA



Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala, 2006tik 2015era arte Espainian dauden langabetu gazte-kopurua (55. aipamen-oharra).


Hazkuntzarik nabarmenena 2008tik 2009ra izan zen, krisiaren ondorioz, bestek beste, 252.100eko desberdintasunarekin. Gailurra 2013an ukitu zuen, %62,88ko tasarekin edota 951.100 langabetuekin. Hurrengo bi urtetan behera egin zuen, guztira 200.300 gazte gutxiago langabetu bezala. Nahiz eta jaisten egon, oraindik gazteen %55,93 langabezian aurkitzen dira, horrek esan nahi du, gazteen erdia baino gehiagok ez dutela lanik.

#### 5.1.2.3. LANGILE KOPURUA

Aldagai hau aztertzea ezinbestekoa da, langileak baitira kotizatzen dutenak. Lagina, Estatistikako Institutu Nazionalaren web-orrialdetik<sup>58</sup> hartu dut, erreferentzia unean, soldata (espezietan edo diruzkoa) baten truke, gutxienez ordubete lanean egon diren pertsona-kopuruak dira. Laneko baja (gaixotasunagatik, oporregatik, etab.) izan duten pertsonak ere lagin honen barruan kokatzen dira.

Puntu honek lotura zuzena dauka, langabeziarekin. Izan ere, orokorrean, bat igotzen bada, bestea jaitsi egingo delako eta alderantziz. Beraz iturria langabezian hartutakoaren berdina da.

### 6. IRUDIA: KOTIZATZEN DUTEN LANGILE-KOPURUA



Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala, 2006tik gaur egunera arte Espainian dauden langile-kopurua<sup>59</sup>.

Bilakaera aztertuz, hasiera batean langile-kopurua pixka bat igo egiten da, baina gero, 2014ko lehen lau hilabetera arte nabarmen jaisten da, guztira 3.802.800 pertsona

<sup>58</sup> Instituto Nacional de Estadística (2016): Encuesta de Población Activa-Trimestre 2/2016 [http://www.ine.es/dyngs/INEbase/es/operacion.htm?c=Estadística\\_C&cid=1254736176918&menu=ultiDatos&idp=1254735976595](http://www.ine.es/dyngs/INEbase/es/operacion.htm?c=Estadística_C&cid=1254736176918&menu=ultiDatos&idp=1254735976595) [2016-10-09an ikusia]

<sup>59</sup> Instituto Nacional de Estadística (2016). <http://www.ine.es/consul/serie.do?d=true&nocab&s=EPA87&c=2&nult=100> [2016-10-09an ikusia]


gutxiagorekin. Aipatu behar da, azken bi urtetan egora pixka bat egonkortzeari ekin diola, 2007tik lehenengo igoera emanez, guztira langile-kopurua 163.343an haziaz. Gaur egun, langile-kopurua, 19.578,40 mila pertsonan kokatzen da.

#### 5.1.2.4. ENPRESAK

Kontzeptu hau oso erlazionaturik dago langilearekin. Izan ere, kotizazio-tipoa enplegatzailearen eta enpleguaren artean banatzen da; lan-istripuei eta gaixotasun profesionali buruzkoak eta soldatak bermatzeko funtsak izan ezik, hauek, enpresaren kargura soilik doaz<sup>60</sup>. Ondorioz, langile gutxiago egongo balitz lanean, enpresak Gizarte Segurantzari gutxiago kotizatuko lukete, nahiz eta langabeziagatik ordaindu (beste zenbatekoarekin konparatuz, langabeziagatikoa askoz gutxiago da).

Krisi garaian, enpresa asko suntsitu ziren eta ondorioz, lanpostua. Baina, nahiz eta krisi garaian murgilduta egon, ez dira enpresak sortzeari utzi. Beraz, lehenengo sortu diren enpresari buruz hitz egingo dut, ondoren totalari buruz hitz egiteko.

### 7. IRUDIA: 2006 URTETIK 2011RA ARTE SORTUTAKO ENPRESA-KOPURUA



Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala. 2006. urtetik 2011ra sortutako enpresa-kopurua<sup>61</sup>.

Irudian agertzen den bezala, 2006. urtean sortutako enpresa-kopurua, 369.300tan kokatu zen, baina 2010. urtera arte jaitsiera bat nabaritu zen, nabarmenena, 2007. urtetik 2008ra izanez, krisiaren ondorioz, besteak beste. 2010. urtean enpresaren sortzapen-kopurua pixka bat hobetu zela ikusten dut, 5 urtetan lehenengo aldiz eman baitzen igoera.

Totalari buruz hitz egiterakoan, orain arte asko aipatu dudana krisi horren eragina ere nabarmentzen dela esan behar dut. Baina, nahiz eta jende askok enpresa bat sortzera ausartu, ez da beti ondo irteten. Izan ere, Estatistikako Institutu Nazionalak argitaratutako aldizkari informatibo batean aipatzen duenez, 2007 eta 2008an sortutako enpresen artean, %80k<sup>62</sup> bakarrik bizirik irauten jarraitzen zutela urte bat pasatu ondoren.

Ondorengo irudian (8. Irudia), bizirik irauten duten enpresa-kopurua agertzen da, gora beherako bilakaerarekin. 2005etik 2008ra arte, sortzen ziren enpresak, desagertzen zirenak baino gehiago ziren, baina ondoren, (2008tik 2013ra arte) krisi ekonomikoaren eraginaz, hiltzen ziren enpresak jaiotzen ziren enpresei gainditzen zioten. Krisiak gehien


<sup>60</sup> Seguridad Social (2016). Trabajadores. Información General. [http://www.seg-social.es/Internet\\_1/Trabajadores/CotizacionRecaudaci10777/Regimenes/RegimenGeneraldeLaS10957/InformacionGeneral/index.htm#582](http://www.seg-social.es/Internet_1/Trabajadores/CotizacionRecaudaci10777/Regimenes/RegimenGeneraldeLaS10957/InformacionGeneral/index.htm#582) [2016-10-09an ikusia]

<sup>61</sup> Instituto Nacional de Estadística (2013): Indicadores de Demografía Empresarial Año 2011. <http://www.ine.es/prensa/np814.pdf> [2016-10-09an ikusia]

<sup>62</sup> Boletín Informativo del Instituto Nacional de Estadística (2012): Las empresas en España. <http://www.albacete.es/es/portemas/empleo/otros-enlaces-observatorio/las-empresas-en-espana.pdf> [2016-10-09an ikusia]

eragin zion sektorea, eraikuntzarena izan zen eta ondorioz enpresa gehienak, sektore horretan desagertu ziren.

## 8. IRUDIA: ENPRESA-KOPURUAREN EBOLUZIOA



Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala. 2005. urtetik, 2013. urtera arte Espainian bizirik dauden enpresa-kopurua <sup>63</sup>.

Behin diru-sarrerak aztertu eta aldagaien bilakaera ikusirik, diru-irteerarekin hasiko naiz.

## 5.2. DIRU IRTEERAK

Gizarte Segurantzako diru-sarreraren banaketa, aurretik esan bezala, berehala eta epe laburrera banatzen dituzte. Banaketa teknikak<sup>64</sup>, Gizarte Segurantzaren Sistemara hobeto egokitzen direnak dira, solidaritate finantzarioaren printzipioan oinarritzen da. Solidaritate horrek,aldi berean, hiru ardatz desberdinetan eragiten du: belaunaldien arteko solidaritatea, aktiboen pasiboekiko solidaritatea eta nazioko lurralde desberdinen arteko solidaritatea.

Behin Gizarte Segurantzak duen irteera nolakoa den ikusirik, pentsio edo laguntza bakoitzak izan duen bilakaera aztertuko dut, horrela kostua gehitu edo gutxitu egin den ikusi ahal izango dut.

### 5.2.1. PENTSIOTAK

#### 5.2.1.1. ERRETIROA

Gizarte Segurantzaren<sup>65</sup> honela definitzen da: “Bere modalitate kotizaziopekoan, adin batera iritsi ondoren, lana utzi duten edo, erretiro-pentsio partzialaren kasuan, bere lan jarduera legez ezarritako baldintzetan txikiagotu duten langileentzako biziarteko diru-sarrera bat da”.

Jasotzen duten zenbatekoa, aurretik kotizatutako ehunekoaren arabera izaten da, baina urtean gehieneko zenbatekoa dago, 2016. urtean, gehien lortu ahal dutena 35.941,92 euro<sup>66</sup> da. Titularrak izan dezakeen aparteko ordainketei ez die muga horrek

<sup>63</sup> Instituto Nacional de Estadística (2013): Estructura y dinamismo del tejido empresarial en España Directorio Central de Empresas (DIRCE) a 1 de enero de 2013. <http://www.ine.es/prensa/np794.pdf> [2016-10-09an ikusia]

<sup>64</sup> Ministerio de Empleo y Seguridad Social (2016): Irakasleen eremua. 5. unitatea. Finantzazio-sistema. [http://www.seg-social.es/Internet\\_4/PortalEducativo/Profesores/Unidad5/Financiacion/Sistemadefinanciacion/index.htm](http://www.seg-social.es/Internet_4/PortalEducativo/Profesores/Unidad5/Financiacion/Sistemadefinanciacion/index.htm) [2016-10-09an ikusia]


<sup>65</sup> Seguridad Social (2016): Estadísticas, Presupuestos y Estudios. Nota explicativa: Pensiones y pensionistas. [http://www.seg-social.es/Internet\\_1/Estadistica/Est/Pensiones\\_y\\_pensionistas/197607](http://www.seg-social.es/Internet_1/Estadistica/Est/Pensiones_y_pensionistas/197607) [2016-10-09an ikusia]

<sup>66</sup> Seguridad Social (2016): Pensionistas. Importes máximos. [http://www.seg-social.es/Internet\\_1/Pensionistas/Revalorizacion/Importesmaximos2007/index.htm](http://www.seg-social.es/Internet_1/Pensionistas/Revalorizacion/Importesmaximos2007/index.htm) [2016-10-09an ikusia]

kalterik egiten, nahiz eta gehienezko zenbateko hori ere, aparteko ordainketen mugei eragin.

Gehienezko zenbatekoa dagoen bezala, gutxienezkoa ere badago. Hauek aldakorrek dira, pentsiodunen ezaugarriaren arabera. Alde batetik adinaren arabera da eta bestetik, senitartekoren bat ardurapean izatearen arabera, baldin eta ez badu ezarritako sarrera-muga gainditzen. Zenbatekorik baxuena, 562,30€/hilero<sup>67</sup> da, eta honako ezaugarri hauek ditu: 65 urte baina gutxiago duen pentsioduna eta bere kargu senitartekorik ez duena.

## 9. IRUDIA: ERRETIRO-PENTISIA JASOTZEN DUTENEN KOPURUA



Iturria: Gizarte Segurantzaren 2006. urtetik 2015. urtera arte Espainian izandako pertsonek erretiratuak<sup>68</sup>.

Erretiratu-kopuruen bilakaera ikusirik, igotzen ari dela ikusi dezakegu. Ez da harrizkoa, izaten ari den hazkuntza, izan ere, aurretik behin baino gehiagotan aipatu bezala eta ondoren hobeto ikusiko dugun moduan, gizarte zahartzen ari baita. Horrekin batera, bizi-itxaropena ere igotzen doa pixkanaka. Beraz, hurrengo urteetan, gure estatuan gero eta erretiratu gehiago egongo direla aurreikusi dezaket; irudiko bilakaera ikusiz, 9 urtetan konstante igotzen ari delako, zehazki 908.725 pertsonek gehiagotan aurkituz.

### 5.2.1.2. EZINTASUN IRAUNKORRA

Gizarte Segurantzaren web-orrialdean<sup>69</sup>, ezintasun iraunkorra horrela definitzen da: “Bere modalitate kotizaziopekoan, prozesu patologiko edo traumatiko baten eraginez, pertsonek edo profesionalen soldata baten galeraren estaltzea emateko eskaintzen den pentsioa da, gaixotasunetik edo istripu batetatik eratorria izan daitezke, non lan-gaitasuna murriztea edo behin betiko baliogabetzea ekar dezakeen”.

Ezintasun iraunkorra, hurrengo ezintasun-graduetan sailkatzen da:

1. “Ezintasun iraunkor partziala: ezintasun totalera iritsi arte, gutxienez %33ko ezintasuna duena bere lana egoki egiteko.
2. Erabateko ezintasun iraunkorra: Langilea bere lanerako edo bere lanbidearen funtsezko zereginetarako ezgaitzen duena, baldin eta beste enplegu desberdin baterako aritu ahal bada.


<sup>67</sup> Seguridad Social (2016): Pensionistas. Importes máximos. [http://www.seg-social.es/Internet\\_1/Pensionistas/Revalorizacion/Cuantiasminimas2007/index.htm](http://www.seg-social.es/Internet_1/Pensionistas/Revalorizacion/Cuantiasminimas2007/index.htm) [2016-10-09an ikusia]

<sup>68</sup> Ministerio de Empleo y Seguridad Social (2016). Pensiones Contributivas del sistema de la Seguridad Social. <http://nubr.co/TyfqgS> [2016-10-09an ikusia]

<sup>69</sup> Seguridad Social (2016): Estadísticas, Presupuestos y Estudios. Nota explicativa: Pensiones y pensionistas. [http://www.seg-social.es/Internet\\_1/Estadistica/Est/Pensiones\\_y\\_pensionistas/197607](http://www.seg-social.es/Internet_1/Estadistica/Est/Pensiones_y_pensionistas/197607) [2016-10-09an ikusia]

3. Ezintasun iraunkor absolutua: langilea bere lanbiderako, zein bere ofiziorako guztiz baliogabetzen duena bere bizibide guztirako.
4. Ezintasun handia: Ezgaitasun iraunkorra izateaz gainera, anatomiaren edo funtzionalaren galtzearen ondorioz, bizitzaren egintza funtsezkoenak burutzeko, beste pertsona baten beharra daukaten langileak dira” (69. aipamen-oharra).

## 10. IRUDIA: EZINTASUN-PENTSIONA JASOTZEN DUTENEN KOPURUA



Iturria: Gizarte Segurantzaren 2006. urtetik 2015. urtera arte Espainian, Gizarte Segurantzaren bidez jasotzen duten ezintasun pentsioen pertsona-kopurua (68. aipamen-oharra).

Goiko grafikoa ikusten badut, esan dezaket orokorrean urtero igotzen doala, nahiz eta 2012. urte erdialdetik 2015. urte hasiera arte jaitsiera bat nabaritu. 2015. urteko abenduan, 936.666 pertsona erregistratuta zeuden eta 2006 hasieran aldiz, 845.668. Hau da, 9 urtetan zehazki 90.998 ezintasun-pentsiodun gehiago erregistratuta daude.

### 5.2.1.3. HERIOTZAGATIK:

Gizarte Segurantzako web-orrian honela definitzen da: “Heriotza eta bizirik irauteagatiko prestazioek pertsona batzuen heriotzak beste batzuentzat dakarren behar ekonomikoaren egoera konpentsatzen dute Bertan, alarguntza, zuztasuna eta familien aldeko pentsioak sartzen dira” (69. aipamen-oharra).


#### 5.2.1.3.1. ALARGUNTZA

“Ezkontidea hil zaion eta berriro ezkondu ez den pertsona” (Harluxet Hiztegi Entziklopedikoa (1998)) Egoera bakoitzean, alarguntzagatiko pentsioa jaso ahal izateko, pentsioen onuradunek beste hainbat baldintza bete beharko dute, Estatuko Aldizkari Ofizialean, 1795/2003eko Errege Dekretuan<sup>70</sup> azaltzen den bezala.

Behin pixka bat azalduta zer den, urteroko bilakaera aztertuz, alargunak diren pertsonen kopurua urtero igotzen doala ikusi dezaket 11. irudian, nahiz eta 2015. urtean jaitsiera txiki bat egon, berriz ere nahiko konstanteki igotzen da. Beraz, hurrengo urteetan bilakaera berdina izango duela pentsatzen dut, zeren 2006tik igotzen baitoa.

<sup>70</sup>. 2003/12/27ko Estatuko Aldizkari Ofiziala, 1795/2003eko Errege Dekretua, alarguntzaren pentsioen hobekuntza. <http://www.boe.es/boe/dias/2003/12/27/pdfs/A46233-46235.pdf> [2016-10-09an ikusia]

## 11. IRUDIA: ALARGUN-PENTSIOA JASOTZEN DUTENEN KOPURUA




Iturria: Gizarte Segurantza. 2006. urtetik 2015. urtera arte Espainian alarguntzatik, Gizarte Segurantzaren bidez jasotzen duten pentsioen pertsona-kopurua (68. aipamen-oharra).

### 5.2.1.3.2. ZURZTASUNA

Gizarte Segurantzaren arabera, zer da zurztasuna?: “Hildako pertsonaren seme-alabei eta ezkonlagunarenei ematen zaien diru-laguntza da; pentsioa. Horretarako, hainbat baldintza bete behar izaten dira”<sup>71</sup>. Diru-laguntza hori lortu ahal izateko, ezaugarri batzuk izatea beharrezkoa da, Estatuko Aldizkari Ofizialean, 296/2009eko Errege Dekretuak<sup>72</sup> biltzen duen arabera.

## 12. IRUDIA: ZURZTASUN-PENTSIOA JASOTZEN DUTENEN KOPURUA



Iturria: Gizarte Segurantza. 2006. urtetik 2015. urtera arte Espainian zurztasunagatik, Gizarte Segurantzaren bidez jasotzen duten pentsioen pertsona-kopurua (68. aipamen-oharra).

Zurztasun-pentsioa jasotzen duten pertsonen kopurua urtero igotzen doala ikusi dezaket. 2006. urtetik 2012. urtera nahiko konstante mantentzen da, zeren 6 urtetan ez baita 20.000 pertsonako hazkundera iristen. Baina gero, 2012ko urtarriletik 2015. urteko irailera arte, igoera nabarmena sumatzen da, zehazki, 65.047 pertsonakoa.

### 5.2.1.3.3. FAMILIEN ALDEKOA


Familien aldeko pentsioa, Gizarte Segurantzaren arabera: “Hildako pertsonaren kontu (ekonomikoki) eta pertsonarekin bizi izan diren senitartekoei ematen zaien

<sup>71</sup> Seguridad Social (2016): Izapideak eta Kudeaketak. Umezurtz pentsioa. [http://www.seg-social.es/Internet\\_4/Masinformacion/TramitesyGestiones/Prestacionesdemuert45659/Pensiondeorfandad/index.htm](http://www.seg-social.es/Internet_4/Masinformacion/TramitesyGestiones/Prestacionesdemuert45659/Pensiondeorfandad/index.htm) [2016-10-09an ikusia]

<sup>72</sup> 2009/03/21ko Estatuko Aldizkari Ofiziala, 296/2009eko Errege Dekretua, heriotzagatik eta bizirik irauteagatik jasotako laguntzen erregulazioaren aldaketak. <http://www.boe.es/boe/dias/2009/03/21/pdfs/BOE-A-2009-4725.pdf> [2016-10-09an ikusia]

prestazio ekonomikoa da; beharrezko baldintzak betetzen dituztenei ematen zaie pentsio hori<sup>73</sup>. Beharrezko balditza horiek, Gizarte Segurantzako web-orrialdean<sup>74</sup> argitaratu dira.

### 13. IRUDIA: FAMILIEN ALDEKO LAGUNTZA JASOTZEN DUTEN PERTSONA-KOPURUA




Iturria: Gizarte Segurantza. 2006. urtetik 2015. urtera arte Espainian, familien aldeko laguntza, Gizarte Segurantzaren bidez jasotzen duten pertsonea-kopurua (68. aipamen-oharra).

Irudi honek duen ibilbidea, gora beheratua dela esan dezaket, baina 9 urtetan ia kopuru berdinerira iristen da, ia 39.500 pertsonetan (zehazki bien artean 213 pertsonen arteko aldea dago bakarrik). Gutxieneko kopurua 37.468 pertsonan kokatu zen, 2013 eta 2014. urte artean.

Behin pentsio motak aztertuta eta bilakaera ikusirik, esan dezakegu, pentsioa jasotzen dutenen gehiengoa erretiratuak direla eta pentsio mota guztiek igotzen ari direla. Hau da, mota guztietan gero eta pertsona gehiagok jasotzen dutela laguntzak. Baina egiaztatzeko, pentsiodun osoaren bilakaera aztertuko dut.

### 14. IRUDIA: PENTSIODUNEN KOPURUA GUZTIRA



Iturria: Gizarte Segurantza. 2008. urtean<sup>75</sup>, 2009. urtean<sup>76</sup>, 2010. urtean<sup>77</sup>, 2011. urtean<sup>78</sup>, 2012. urtean<sup>79</sup>, 2013. urtean<sup>80</sup>, 2014. urtean<sup>81</sup>, 2015. urtean<sup>82</sup> eta 2016. urtean<sup>83</sup> Espainian, Gizarte Segurantzaren bidez jasotzen duten pentsioen pertsonea-kopurua.

<sup>73</sup> Seguridad Social (2016): Izapideak eta Kudeaketak. Familiakoen aldeko pentsioa. [http://www.seg-social.es/Internet\\_4/Masinformacion/TramitesyGestiones/Prestacionesdemuert45659/Pensionenfavordefam45668/index.htm](http://www.seg-social.es/Internet_4/Masinformacion/TramitesyGestiones/Prestacionesdemuert45659/Pensionenfavordefam45668/index.htm) [2016-10-09an ikusia]

<sup>74</sup> Seguridad Social (2016): Langileak. [http://www.seg-social.es/Internet\\_4/Trabajadores/PrestacionesPension10935/MuerteySupervivencia/RegimenGeneral/Pensionenfavordefam28536/Beneficiarios/index.htm](http://www.seg-social.es/Internet_4/Trabajadores/PrestacionesPension10935/MuerteySupervivencia/RegimenGeneral/Pensionenfavordefam28536/Beneficiarios/index.htm) [2016-10-09an ikusia]

<sup>75</sup> Seguridad Social (2016): Estadísticas, Presupuestos y Estudios. Pensiones en vigor a 1 de diciembre de 2008. [http://www.seg-social.es/Internet\\_1/Estadistica/Est/Pensiones\\_y\\_pensionistas/HistoricoEstadisticas/Hist2008/pcv2008/Pccats/176527](http://www.seg-social.es/Internet_1/Estadistica/Est/Pensiones_y_pensionistas/HistoricoEstadisticas/Hist2008/pcv2008/Pccats/176527) [2016-10-09an ikusia]

<sup>76</sup> Seguridad Social (2016): Estadísticas, Presupuestos y Estudios. Pensiones en vigor a 1 de diciembre de 2009 [http://www.seg-social.es/Internet\\_1/Estadistica/Est/Pensiones\\_y\\_pensionistas/HistoricoEstadisticas/Hepp2009/PensContrib2009/PensionesCCAA2009/176515](http://www.seg-social.es/Internet_1/Estadistica/Est/Pensiones_y_pensionistas/HistoricoEstadisticas/Hepp2009/PensContrib2009/PensionesCCAA2009/176515) [2016-10-09an ikusia]


Lortutako datuak, urte bakoitzaren abendukoak dira, 2016. urtekoa ordea, martxokoa da, oraindik ez baikara abendura iritsi.

Bilakaera ikusiz aurretik esandakoa baieztatu behar dut. Hau da, urtero, gero eta pentsiodun gehiago aurkitzen direla. 2008. urteko abenduan, 8.464.342 pentsiodun zeuden eta 2016ko apirilean aldiz, 9.371.760. 8 urtetan ia milioi bat hiritar gehiago daude pentsioa jasotzen.

## 5.2.2. GASTUAK

Behin pentsiodun kopuruak ikusirik, horrek eragiten duen gastua aztertuko dut.

### 15. IRUDIA: KOTIZAZIOPEKO PENTSIONEN KOSTUA



Iturria: Gizarte Segurantzaren 2012. urtetik 2016. urtera arte Espainian, kotizaziopeko pentsioak ordaintzearen kostua.<sup>84</sup>

2012. urtetik 2016ra arte hartutako datuak abendukoak izan dira, baina 2016ko datua apirilkoa da, aurretik esan dudana bezala, abendura ez baikara iritsi. Pentsioen kostua, urtero hazten doala esan dezaket, irudian ongi azaltzen den bezala.

4 urtetan egin den aldaketarik handiena, 2012tik 2013ra arte izan zen, zehazki 357.943,75€ hazi zen kostua. Hurrengo urteetan ez da hainbeste igo, nahiz eta azken urtea 12 hilabete ez izan, ez dut uste zenbateko horretaraino iritsiko denik. Baina hala ere, hurrengo urteetan kostua igoko dela aurreikusita daiteke.

<sup>77</sup> Seguridad Social (2016): Estadísticas, Presupuestos y Estudios. Pensiones en vigor a 1 de diciembre de 2010. [http://www.seg-social.es/Internet\\_1/Estadistica/Est/Pensiones\\_y\\_pensionistas/HistoricoEstadisticas/Hepp2010/PensContrib2010/PensionesCCAA2010/176503](http://www.seg-social.es/Internet_1/Estadistica/Est/Pensiones_y_pensionistas/HistoricoEstadisticas/Hepp2010/PensContrib2010/PensionesCCAA2010/176503) [2016-10-09an ikusia]

<sup>78</sup> Seguridad Social (2016): Estadísticas, Presupuestos y Estudios. Pensiones en vigor a 1 de diciembre de 2011. [http://www.seg-social.es/Internet\\_1/Estadistica/Est/Pensiones\\_y\\_pensionistas/HistoricoEstadisticas/Hepp2011/PensContrib2011/PensionesCCAA2011/176491](http://www.seg-social.es/Internet_1/Estadistica/Est/Pensiones_y_pensionistas/HistoricoEstadisticas/Hepp2011/PensContrib2011/PensionesCCAA2011/176491) [2016-10-09an ikusia]

<sup>79</sup> Seguridad Social (2016): Estadísticas, Presupuestos y Estudios. Pensiones en vigor a 1 de diciembre de 2012. [http://www.seg-social.es/Internet\\_1/Estadistica/Est/Pensiones\\_y\\_pensionistas/HistoricoEstadisticas/Hepp2012/PensContrib2012/PensionesCCAA2012/176479](http://www.seg-social.es/Internet_1/Estadistica/Est/Pensiones_y_pensionistas/HistoricoEstadisticas/Hepp2012/PensContrib2012/PensionesCCAA2012/176479) [2016-10-09an ikusia]

<sup>80</sup> Seguridad Social (2016): Estadísticas, Presupuestos y Estudios. Pensiones en vigor a 1 de diciembre de 2013. [http://www.seg-social.es/Internet\\_1/Estadistica/Est/Pensiones\\_y\\_pensionistas/HistoricoEstadisticas/Hepp2013/PensContrib2013/PensionesCCAA2013/179973](http://www.seg-social.es/Internet_1/Estadistica/Est/Pensiones_y_pensionistas/HistoricoEstadisticas/Hepp2013/PensContrib2013/PensionesCCAA2013/179973) [2016-10-09an ikusia]

<sup>81</sup> Seguridad Social (2016): Estadísticas, Presupuestos y Estudios. Pensiones en vigor a 1 de diciembre de 2014. [http://www.seg-social.es/Internet\\_1/Estadistica/Est/Pensiones\\_y\\_pensionistas/HistoricoEstadisticas/EstadPensiones2014/PensContrib2014/PensionesCCAA2014/195884](http://www.seg-social.es/Internet_1/Estadistica/Est/Pensiones_y_pensionistas/HistoricoEstadisticas/EstadPensiones2014/PensContrib2014/PensionesCCAA2014/195884) [2016-10-09an ikusia]

<sup>82</sup> Seguridad Social (2016): Estadísticas, Presupuestos y Estudios. Pensiones en vigor a 1 de diciembre de 2015. [http://www.seg-social.es/Internet\\_1/Estadistica/Est/Pensiones\\_y\\_pensionistas/HistoricoEstadisticas/HEPP2015/PCV/CCAA%20y%20P/210658](http://www.seg-social.es/Internet_1/Estadistica/Est/Pensiones_y_pensionistas/HistoricoEstadisticas/HEPP2015/PCV/CCAA%20y%20P/210658) [2016-10-09an ikusia]


<sup>83</sup> Seguridad Social (2016): Estadísticas, Presupuestos y Estudios. Pensiones en vigor a 1 de diciembre de 2016. [http://www.seg-social.es/Internet\\_1/Estadistica/Est/Pensiones\\_y\\_pensionistas/HistoricoEstadisticas/pen16/PeCo16/CCAA16/213455](http://www.seg-social.es/Internet_1/Estadistica/Est/Pensiones_y_pensionistas/HistoricoEstadisticas/pen16/PeCo16/CCAA16/213455) [2016-10-09an ikusia]

<sup>84</sup> Seguridad Social (2016): Estadísticas, Presupuestos y Estudios. Periodo 2012–2016. [http://www.seg-social.es/Internet\\_1/Estadistica/Est/Pensiones\\_y\\_pensionistas/Series\\_de\\_Pensiones\\_en\\_vigor\\_y\\_Pensionistas/ESTC\\_001855](http://www.seg-social.es/Internet_1/Estadistica/Est/Pensiones_y_pensionistas/Series_de_Pensiones_en_vigor_y_Pensionistas/ESTC_001855) [2016-10-09an ikusia]

## 6. DEMOGRAFIA

Nire kasuan, biztanleria urtetan banatzea interesatzen zait, gizartearen batez besteko adina aztertzeko.

### 16. IRUDIA: 2015. URTEKO ESPAINIAKO BIZTANLERIAREN PIRAMIDEA



Piramidea, generoan eta adinean sailkatuta dago. Bere itxurak, atzerazko biztanleri baten aurkitzen garela erakusten du. Baita ere, biztanleria zaharkituta dagoela, orain dela 35-40 urte, orain baino jende gehiago jaiotzen zirelako eta pertsona-kopuru gehiena bertan, kokatzen delako; Ondorioz, gazteen ehunekoa oso baxua da eta are baxuagoa izango da etorkizunean. Hala ere, 2005etik 2010. urtera arte, jaiotza-tasak berreskuratze txikia izan zuen, etorkinak zirela eta, besteak beste.

Jaiotza baxuaren kausatzaileetako bat, orain arte etengabe aipatzen hari garen krisi ekonomikoa da. Jendeak lan merkatua nola dagoen ikusirik, askok emantzipatzeko beldurra dauka, eta beraz, ezkontza-adina atzeratzen doa eta horrek, seme-alaben kopuruan eragiten du<sup>86</sup>. Bestalde, emakumek, lan merkatuan murgilduta daude eta askok bere amatasuna atzeratzen dute, lan egoera sendotu arte. Beraz, hau horrela jarraitzen badu, biztanleria zahartu egingo da eta biztanleria hori, zahartzen joaten den heinean, ekonomikoki mantentzeko arazoak izango ditugu<sup>87</sup>.

65 urte baino gehiago duten pertsonen kopurua handitzen doa urtero, honek esan nahi du, bizi-itxaropena gora doala eta beraz, gero eta zahar gehiago aurkitzen dela gizartean. Horrek, pentsioetan gehiago inbertitzea ekarriko du. Izan ere, erretiratuaren pentsioak ordaintzeko, langile aktiboaren kotizazioaren menpe daude. Beraz, pentsiodunen kopurua handitzeak eta biztanleriaren aktiboa murrizteak, izugarritzko eragina du ekonomian. Hala ere, 65 urte duten pertsona guztiek ez daude denak erretiraturik (edo ez guztiz behintzat). 2016ko bigarren hiruhilekoan, beraien kontura

<sup>85</sup> Proyecta y emprende (2016). Tangient LLC. <https://proyectayemprende.wikispaces.com/file/view/2015.piramide-poblacion-espana-2015.aralگو%27s.jpg/538530412/2015.piramide-poblacion-espana-2015.aralگو%27s.jpg> [2016-10-09an ikusia]


<sup>86</sup> Rovati, L (2010): Nacen menos bebés en España (por primera vez en diez años). <http://www.bebesymas.com/noticias/nacen-menos-bebes-por-primera-vez-en-diez-anos> [2016-10-09an ikusia]

<sup>87</sup> El mundo (2011): El 85% de las españolas que trabajan renuncia a tener otro hijo. <http://www.elmundo.es/elmundo/2011/02/20/espana/1298198338.html> [2016-10-09an ikusia]

lan egiten dutenen eta soldatakoen artean, 162.600 pertsonatara<sup>88</sup> iristen ziren. Zeren 2013. urtean Espainiako legerian erretiro aktiboaren irudia sartu baitzen.

Zer da erretiro aktiboa? “Errege lege-dekretu honen I. kapituluak erretiro-pentsio bat jasotzearen eta norberaren edo besteren konturako lanaren arteko bateragarritasuna arautzen du bizitza aktiboa luza dadin laguntzeko, Gizarte Segurantzako sistemaren jasagarritasuna indartzeko eta langile horien jakintzak eta esperientzia neurri handiagoan baliatzeko. Legeak agindutako adinean erretiratu diren eta kotizazio-ibilbide luzea duten langileei lanaldi osoko edo partzialeko enplegua eta pentsioaren %50 kobratzea bateratzea ahalbidetuko zaie, kotizazio sozialeko betebeharrak mugatuekin.” 5/2013 Errege Lege Dekretua<sup>89</sup>.

## 17. IRUDIA: 65 URTE BAINO GEHIAGO DUTEN LANGILEAK



Iturria: Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala. 2006tik 2015ra bitartean 65 urte baino gehiago duten langile-kopurua<sup>90</sup>.

Esan dezaket 12 urtetan, nahiz eta nahiko gora beheratua izan den, orokorrean igo egin dela 50.000 pertsona baino gehiagotan. Izandako ibilbidea, egoera ekonomiaren parekoa izan da; krisia egon zen unean, jaitsiera nabarmendu zen eta ekonomikoki hobetzen joan den unean, langile-kopurua hazi egin da, lehen esan bezala 2016. urteko lehen hiruhilekoan, 162.600 pertsonatan kokatuz.

Gaur egungo piramidea ikusi ondoren, etorkizunean zer gertatuko den ikusteko aukera eman digu Estatistikako Institutu Nazionalak, betiere gaur egungo joerak eta portaera demografikoak mantenduko balira. Ondorioz demografiaren bilakaera nolako den aipatuko dut, etorkizunean gertatu daitekeena aztertu ahal izateko.

### 6.1. DEMOGRAFIAREN BILAKAERA


Atal honetan, INEk egindako bi proiektzio aipatuko ditut. Alde batetik, epe motzera egindakoa, 2013 eta 2023 urteak erakusten dituena eta bestetik, epe luzeago batera, 2064. urtera egindako proiektzioa.

<sup>88</sup> Uranga, F (2016): El número de mayores de 65 años que trabaja marca su máximo histórico. Ediciones El País S.L. [http://economia.elpais.com/economia/2016/09/02/actualidad/1472813308\\_606243.html](http://economia.elpais.com/economia/2016/09/02/actualidad/1472813308_606243.html) [2016-10-09an ikusia]

<sup>89</sup> 2013/03/16ko Estatuko Aldizkari Ofiziala, 5/2013 Errege Lege Dekretua, martxoaren 15ekoa, langile zaharrenen lanbizitzaren jarraipenaren aldeko neurriak eta zahartze aktiboa sustatzeko neurriak ezartzekoa. [http://www.boe.es/boe\\_euskera/dias/2013/03/16/pdfs/BOE-A-2013-2874-E.pdf](http://www.boe.es/boe_euskera/dias/2013/03/16/pdfs/BOE-A-2013-2874-E.pdf) [2016-10-09an ikusia]

<sup>90</sup> Instituto Nacional de Estadística (2016): Ocupados por sexo y grupo de edad <http://www.ine.es/jaxiT3/Datos.htm?t=4745> [2016-10-09an ikusia]

## 18. IRUDIA: ESPAINIAKO BIZTANLERIAREN PIRAMIDEA. 2013 ETA 2023 URTEAK ETA 2014, 2029 ETA 2064 URTEAK



Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala INE. 2013 eta 2023. urtea. Espainiako biztanleriaren piramidea, emakume eta gizonetan banatuta<sup>91</sup>. 2014, 2029 eta 2064. urtea. Espainiako biztanleriaren piramidea, emakume eta gizonetan banatuta<sup>92</sup>.

Aurretik aipatu bezala, biztanleria pixkanaka zahartzen joango da. 2023. urtean aurre ikusten da, biztanlerian pertsona gehienek 45 urte izango dutela, 2029an 50-54 eta 2064. urtean, 85-89 edo 55-59. 2023. urtean, 15 urtetatik 40 urtera arte gutxi gorabehera, multzo estua dagoela ikusi dezaket, nahiz eta oraindik biztanleri aktibo nahiko egon, zeren 40 urtetik 65 urtera dauden pertsona-kopuruak salbatzen baitu. “Gaurko joera demografikoak mantenduko balira, Espainiak datozen 15 urteetan milioi bat biztanle galduko lituzke eta datozen 50 urteetan 5,6 milioi” (92. aipamen-oharra).

2023. urtean jaiotzen diren ume kopurua, gaur egungoa baino gutxiago izango da eta erretiro pentsioa jasotzen dutenak aldiz, gora egingo du. 2064. urtean ere, joera berdina izango du; gero eta jaiotza-tasa gutxiago eta erretiro-pentsiodun gehiago egongo da.

Biztanleriak behera egingo duela aipatzen du proiektzioan, batez ere, heriotza maila gora egingo duelako eta jaiotzak aldiz behera. Jaiotza kopuruaren jaitsiera, 2009. urtetik hasi zen eta 2064. urtean ere joera horrekin jarraituko duela estimatzen da, amatasunaren adina goraka baitoa (92. aipamen-oharra). Ondorioz, aurretik aipatu dudana bezala, ez dira horren emankorrak izaten eta familiako ume kopurua ere jaitsi egiten da.

Bizi itxaropenari erreparatuz, gora egingo duela aurreikusten dute, piramidean ongi estimatzen den bezala, hau garrantzitsua da, pentsioari buruzko 2013an egindako erreforman, erretiro-pentsioen hasierako zenbatekoa kalkulatzeko sartu den faktore berrian eragiten duelako.

## 7. EMAITZAK

Behin datu guztiak aztertu ondoren, hainbat emaitzetara iritsiko naiz. Kontuan izan behar dut, etorkizuna ezezaguna dela eta ez dakidala zer gerta daitekeen benetan. Baina, iragana aztertu ostean, nondik nora joan daitekeen suposatuta ahal dut.

<sup>91</sup> Instituto Nacional de Estadística (2013): Proyección de la Población de España a Corto Plazo 2013–2023. <http://www.ine.es/prensa/np813.pdf> [2016-10-09an ikusia]

<sup>92</sup> Instituto Nacional de Estadística (2014): Proyección de la Población de España 2014–2064. <http://www.ine.es/prensa/np870.pdf> [2016-10-09an ikusia]

Gobernuak etorkizunean, erreserba-fondoetara diru gehiago sartu beharko luke, bestela ez da diru nahikorik egongo, sortu zen funtzio hori betetzeko. Gainera, Gizarte Segurantzari transferitutako zenbatekoa urtero hazten doa, beraz bilakaera jarraituz, zenbatekoa igotzen jarraituko duenaren ustea daukat. Ondorioz, gobernuak diru asko inbertitu beharko du Gizarte Segurantzari, orain gauden sistema mota hau berdin jarraitu ahal izateko.

2013an aplikatutako erreforma berriak (23/2013 Legea), pentsioak kalkulatzeko indizea aldatu zuen, lehen kontsumo-prezioaren indizea aplikatzen zen, inflazioa kontuan hartzen zuena eta gaur egun, errealizazio-indizea dago indarrean. Aldaketa horrek, erosahalmenean eragiten du, orain aplikatzen den indizeak, ez duelako inflazioa kontuan izaten. Erreforma horren beste aldaketa bat, erretiro-pentsioetan, jasangarritasun faktorea aplikatzea da, non urtetik behin aztergarria den eta pentsio horren zenbatekoa zenbat den aztertzeko formula bat erabiltzen duen, non bertan, bizi-itxaropena kontuan hartzen duen.

Gutxieneko soldata, 2011. urtetik hazten doa, nahiz eta 2 urtetik behin izan, bilakaera gorakorra dauka. Baina, soldaten batez besteko kopurua, jaisten joan zen, 2011tik 2014ra. Horrek esan nahi du, lanean ari ziren langileek gero eta soldata baxuagoa zutela.

Aipatu beharra dago, langabezia 2013tik jaisten ari dela, 5.560.000 pertsonatan kokatuz. Hori oso informazio pozgarria da, zeren krisitik pixkanaka-pixkanaka irteteko lehen pausuak ematen ari garela adierazten baitu. Beraz, langile-kopurua gorakada doala egiaztatu dut, baina Espainiako biztanleriaren %42,17k bakarrik aurkitzen dira lanean. Oso zenbateko txikia da. Gazteen langabezia ere 2013tik jaisten doa; baina oraindik tasa oso handian kokatzen da, zeren 16-24urte bitarteko pertsonen %55,93ak langabezian baitaude.

Espainiako ekonomia aurrera eramateko, beharrezkoak dira langileak, baina baita enpresak ere. Enpresen eboluzioaz hitz egiterakoan, ikusi dut egoera ez dela batere ona, 2008tik beherantz baitoa. Kontuan hartuta, langile-kopurua gora doala eta enpresen kopurua behera, esan dezaket, enpresa gutxiagoetan jende gehiago ari dela lanean. Beraz, enpresa batzuek handitu egin dira eta beste batzuek suntsitu.

Behin sarreren informazioa aztertu ondoren, diru-irteeran aztertutako aldagaiak aipatuko ditut. Baina lehengo, demografiaren aipamen bat egingo dut, zeren gutzia erlazionatuta baitago.

